



Berdintasunera elkarrekin

Sakanako Mankomunitateak Berdintasun Zerbitzua aurkeztu du San Joan bezperan / 9



Martin Larraza
Kintana unibertsitate
publikoko ekonomia
errektoreorde
izendatu dute / 9

Olatzagutiako Udalak
1,9 milioi euroko
aurrekontua onartu
du; 200.000 euro
inbertsioetarako / 8

Unai Hualde Iglesias
Nafarroako
Parlamentuko
presidente aukeratu
dute / 8

Ezkurdiak eta Jakak
sanferminetako lau
t'erdiko final
laurdena jokatu
dute etzi Arbizun / 13

SDAk Milakolore
elkartearen aldeko
futbol partida
inklusiboa antolatu du
bihar Dantzalekun / 17

Sakanako Mank-eko
Maria Markotegi,
Nanoipuin eta
Opazank! sariak
banatu dituzte / 21

'Amaia da hasiera'
ikuskizuna egingen
dute Irurtzungo
plazan, igandean,
22:30ean / 23



Adonak Sakanako
hemezortzi odol-
emaileri emate asko
egiteagatik aitortza
egin die / 8



SAKANA

AIZKORBE

HERRIKO BI OSPAKIZU-NETAKO AURRENA

Herriko festak hurrengo astean izanen dira eta aizkorbearrak eta lagunak elkartzeko aparteko aukera izanen da ospakizuna. Baina horren aurretik ere elkartzeko aitzakia emanen die udako solstizioak. Izan ere, San Juan sua igandean 20:00etan piztuko dute. Horretarako, aizkorbearrek euren etxeetatik eramandako egurra erabiliko dute. Afari-meriendarako etxeetatik eramandako entsaladak eta postreak eta inkerretan prestatutako txistorra, urdaia eta saiheskiak izanen dituzte. Afaldu ondoren su gainean saltatzeko aukera izanen dute aizkorbearrek. Bi su izanen dituzte aukeran, handia eta txikia.

ERROTZ



PLAZAN ELKARTUKO DIRA

Udako solstizioa ospatzeko erroztarrak Nafarroa plazan elkartuko dira igandean, 22:00etan. Aurreneko egitekoa sua piztea izanen da. Hura baliatuko dute afariko jakiak prestatzeko, urdaia, txistorra eta bestelakoak. Majo jan ondoren, su gainean salto egingen dute. Mokadu gehiago jateko aukera ere izanen dute.



Udari ongi etorria

Suaren garrei begiratuta, atzera ere, liluratuta edo hipnotizatuta geldituko gara etzi, udako solstizioa dela eta Sakanan barna piztuko diren su ugariengatik. Igande iluntzean aldamenak eta herritarrak elkartzeko aparteko aitzakia izanen da. San Joanek, gainera, Izurdiagako, Uharte Arakilgo eta Arbizuko festak ekarriko dizkigu

IRURTZUN

SOLSTIZIORAKO IKUSKIZUNA

Aizpeak, Irurtzungo euskaltzaileen topaguneak, beste behin ere irurtzundarrak udako solstizioa ospatzera gonbidatu ditu. Oraingoan ikuskizun bat iragarri dute iganderako, 22:30ean. San Joan gaia ikuskizunarekin batera piztuko da sua Irurtzungo plazan. (Informazio gehiago 23. orrian).

EGIARRETA

SALTATZEKO, ELKARTEAN ELKARTU

Udako solstizioa ospatzeko egia-rrerarrak elkartean elkartuko dira bihar, 22:00ak aldera. Han zein bere afaria prestatu eta majo afalduko dute. Ondoren kalera atera eta sua piztuko dute, haren gainean haurrak ariko dira salto eta salto.

ETXARREN

TXISTORRA ETA SUA

Haur etxarrendarrek egiteko bat izanen dute igande goizean: iluntzean piztuko den surako erre-gaiak biltzea. Jasotako adarrak eta bestelakoak Aranburu frontoiaren ondoan piztuko dituzte. 19:00etan haiek egoki jarriko dituzte. 20:30ak aldera txistor-jana izanen da eta majo jan ondoren, iluntzean, sua piztuko da. Haren gainean saltatzeko txanda izanen da orduan. Berreskuratu zutenetik, seigarren urtea da Etxarrenen udako solstizioa ospatzen dena.

Arbizu
Embutidos y paños

Tradizioaren zaporea

Ongi pasa San Juanetan!!!

www.embutidosarbizu.es
info@embutidosarbizu.com
T. 948 460 628

KIROLDEGIKO Ongi pasa festetan!
TABERNA

Goizeko Betatik aurrera zabalik

Gosariak	Bokatak
Bazkariak	Errazioak
Meriendak	Plater konbinatuak
Afariak	Menua

948 461 610
ARBIZU



Joan den astean hasi zituzten festak Izurdiagan. UTZITAKOA

IZURDIAGA

FESTAK BUKATZEKO SUAK

OSTIRALA 21

20:00 Txupinazoa.
20:30 Zirku-tailerra.
21:30 Txotxongilo antzerkia.
22:00 Kalderete txapelketa.
24:00 Dantzaldia Luzianorekin.
Ondoren, haiek bota arte, Aiton Rave-
zaleak dj-ak.

LARUNBATA 22

12:30 Herri jolasak.
13:00 Bermuta.
14:00 Bazkari autogestionatua.
16:30 Etkez-etxeko erronda, Asterix
eta Obelix gaia duena.
22:00 Herri-afaria, parrillan.
00:30 Kontzertua: Los Webotes.
03:00 Dj.

IGANDEA 23

11:15 Meza eta hamaiketakoa.
12:30 Puzgarriak.
14:30 Herri-bazkaria.
17:00 Umeendako jolasak.
17:00 Mus eta partxis txapelketak.
19:00 Dantzaldia Duo Jaliscorekin.
19:00 Txokolate-jana.
22:00 Sanjoanetako suak eta ondarren
afaria.

EKAI

SALTO ETA AFALDU

Udako solstizioko ospakizunak bihar egingen dituzte Ekain. Ekai-darrak goiko plazan, iturri ondoan, elkartuko dira eta 21:00ak aldera sua piztuko dute. Inkerrak edo txingarrak baliatuko dituzte afaria prestatzeko. Afariko menua txistorrak, urdaiazpikoak eta

bestelakoek osatuko dute. Ondoren, su gainean salto egingen dute.

ZUHATZU

SUA PIZTEKO PREST

Zuhatzuarrek udako solstizioko ospakizunak autobus geltoki parean egingen dituzte. 19:00etan ospakizunaren protagonista izanen den sua prestatuko dute, ondoren hura pizteko. 20:00ak aldera otamena izanen dute zuhatzuarrek, sutan ondutako txistorra, sardinak eta bestelako jatekoak dastatuko dituzte. Gero su gainean saltoka aritzeko garaia izanen da. Akordeoilaria izanen da giroa alaitzen.

SATRUSTEGI

ZER JAN, NON SALTO EGIN

"Plaza gorrian" ospatuko dute satrustegiarrek udako solstizioa atzera ere. Igandean, 21:00ak aldera, su txiki bat piztuko dute

eta afarirako jatekoak han prestatuko dituzte: txistorra, tripotak eta sardinak. Afaldu ondoren, su handia piztuko dute eta haren gainetik saltoka ariko dira.

HIRIBERRI ARAKIL

ELKARTEAN DA HITZOR-DUA

Txitera elkartea da udako solstizioko ospakizunen erdigunea. Igande arratsaldean han elkartuko dira hiriberriarrak. Goizean haurrak agotza eta egurra jasoko dituzte, haiek pilatu eta su emateko prestatuta utziko dute. 20:00etan sua piztuko dute haren gainean saltoka ibiltzeko. Txitera elkarteko zuzendaritzako kideak jatekoak prestatzen hasiko dira 21:00ak aldera. Menu-rako txistorra, urdaia eta saiheskiak.

IHABAR

SUA ETA JATEKOAK

Autobiatik herrirako sarreraren ondoan, San Joan kalearen hegoaldean ospatzen dute iyebar-darrek udako solstizioa. Igandean 21:30ak aldera elkartuko dira eta sutan txistorrak eta sardinak prestatuko dituzte. Haiek jaten laguntzeko sagardoa eta ardoa izanen dute. Jatekoak ontzeko prestatutako sua bizitu eta haren gainean saltoka daudela sartuko da gauda.

IRAÑETA

MERENDEROAN HITZOR-DUA

Irintarrak merenderoan elkartuko dira igandean, 20:30ak aldera. Frontoiairen eta Txapel Azpi elkartearen atzeko alde horrek hartuko ditu udako solstizioko ospakizunak. Hasteko urdaia eta bestelakoak prestatuko dituzte, otamenerako. Majo jan ondoren, gauda sartzeaz doala sua piztu eta su gainean saltoka ibiliko dira. Irintarrek horrelakoetan esaera bat esanen dute: zorriyek eta partzak, sarna fuera!

ARRUAZU

JATEKOAK, ERREPIKA ETA SUA

Suak piztu nahi badira aurretik prestatu beharra daude eta hori izanen da arbazarren aurreneko egitekoa igande arratsaldean. Frontoiairen ondoan udalaren sua izanen da, han txistorra eta urdaia prestatuko dituzte iluntzean banatzeko. Udako solstizioko auzatea, gainera, gazta eta ardoarekin osatuko da. Su handia 22:00etan piztuko dute eta kanpai-dorrean igotakoek ezkila errepi-

ka egingen dute, etzi edozeinek aukera izanen baitu horretarako. Ezkila errepiaren erritmora su gainean saltoka ariko dira arbazarren.

LAKUNTZA



SUA ETA EZKILAK

Udako solstizioko ospakizunak lakuntzarren topaketa bihurtzen dira. Auzoetako aldamenek elkarrekin pizten dute sua, baita afaldu ere. Su gainean saltoka ariko dira. Igandean, gainera, elizako ezkila-dorreak 22:00etatik 24:00etara ateak zabalik izanen ditu eta edozeinek igo eta ezkilak jotzeko aukera izanen du. Gainera, han goian auzatea izanen da.

UNANU

SU GAINEN SALTOKA

Udako solstizioa ospatzeko unanarrak mediku-kontsultategiko plazan elkartuko dira. 20:30ak aldera bi su piztuko dituzte: txikia eta handia. Aurrenekoan haurrak ariko dira saltoka eta atzenekoan helduak. Salto egitez ase eta gero, tripa asetzeko garaia iritsiko zaie eta afaria izanen da.

BU EK
Fernando Urkia. 1
Arbiza

— Ilapaindegi mistoa —

Ongi pasa festetan!

948 461 698

Txalaparta

Ondo Pasa San Juanetan

Taberna

948 467 070

Zumalakarregi plaza

ALTSASU

Ongi pasa jaietan!

Hijos de Goikoetxea

Tel. 948 467 317 - 948 552 341 - Gailuak 11 - ALTSASU



DORRAO

SAN JOAN ERMITARA

Nenau despopulatuko eliza zen gaur egun San Joan ermita, Dorraora joateko bidegurutzearen ondoan dagoena. Igandean eta astelehenean han elkartuko dira dorrobarrak. Igandean, 19:00etan, ermitan bezperak eta arrosarioa izanen dira. Ondoren kontzejuak auzatea eskainiko die elkartutakoiei. Gazta, ogia eta ardoa ez dira faltako. Gaua sartu aurretik autobus geltoki inguruan sua piztu eta han ibiliko dira saltoka.

Astelehenean, 10:30ean, ermitan meza izanen da eta handik atera ondoren, auzatea. Ermita, atzera ere, irailaren 7an zabalduko da, San Juan txiki kofradiaren egunarekin. Baina hura iritsi aurretik, San Joan ospatzeko, Itur-aldea elkartean gosaria eta bazkaria izanen dira astelehenean. Dorraoko Kontzejuak, ohiturari segituz, herriko etxe bakoitzeko pertsona bat gonbidatuko du bazkarira. Etxeren batetik bakarren batek gehiago joan nahiko balu, berak ordainduta joan beharko luke.

LIZARRAGA

INTXORRETA KALEAN DA HITZORDUA

Garai batean herriko karrika bakoitzeko su bana pizten bazen, zazpi hain zuzen ere, igandean Intxorreta kaleko aldamenak izanen dira Lizarragan udako solstizioa ospatuko dutenak. Afari-merienda eginen dute aurrena eta iluntzean Ergoienako udaletxearen parean sua piztuko dute eta haren gainean saltoka ibiliko dira.

Lizarragan su gainean saltaterakoan esateko makina bat esaera dituzte: purrin San Juan edo ipurdin San Juan. Eta haien ondoren beste esaldi batzuk etor zitezkeen: salero pepe; Unanuko tripotak lehertzeko; Etxarriko tripotak lehertzeko; Lizerraakuek aungi izeteko; Lizerrakuek aungi atiatzeko; subiek ez piketzeko; ergun idiyek ez ozka itteko; tximixek ez pikatzeko; arkokosuek ez pikatzeko; zorriyek eta partzak hiltzeko...

ETXARRI ARANATZ

SUAK HAN ETA HEMEN



Joan den urtean Irurtzunen. AIZPEA

Etxarriarrek zein bere karrikan piztuko dituzte suak. Aldamenak kalera atera eta suaren inguruan elkartuko dira. Bakarren batzuk afaltzeko ere baliatuko dute aukera. Su gainean salto egiterakoan etxarriarrek esaera bat esan ohi dute: zorriyek eta partzak iltzeko!

BAKAIKU

MAIATZA, SUA ETA JANA

Udako solstizioarekin batera bakaikuarrek urteko bigarren maiatzaren jasoak jasotzen dute. Maiatzaren 1ean mendian pago enborra zutitu bazuten, bihar, 18:00etan, herrian jasoko dute. Ondoren, auzatea izanen da. Festetearaino zutik izanen da maiatza. San Joan ospakizunak domekan izanen du segida. Bakaikuarrek auzoan izanen den auzatean elkartuko dira, 20:00etan. Akordioariaren doinuek alaituko dute topaketa. Gaua sartzean gazte asanbladak San Juan plazan sua piztuko du. Herriar gehienak han elkartuko badira ere, Hangoian eta Hanben ere su banaren bueltan elkartuko dira. Nahikoa salto egin ondoren, 23:00etan, Bakarrekotxea elkarrekin txokolate-jana eskainiko du.

Asteleheneko San Joan ospakizunetako protagonistak jubilatuak eta haurrak izanen dira. Txikiendako gaztelu puzgarria izanen da egun guztian eskolako belardian. 13:00etan, berriz, akordeoilariak girotutako auzatea izanen da San Joan plazan. Ondoren, jubilatuen urteroko baz-

karia eginen da. Bukatzeko, 17:30ean, haurrei opilak, txokolatea eta goxokiak banatuko zaizkie auzoan.

ITURMENDI

SU HANDIAREN BUELTAN ELKARTUTA

Arrano Beltza plazan auzatea izanen da domekan, 20:00etan. Iturmendiarrak hara elkartu eta zerbait jan eta edan ondoren, su handi bat piztuko dute. Garrak txikitzean haren gainean saltoka ibiliko denik izanen da. Ondoren, Aitzkozar elkartean herri-afaria izanen da 22:00etan. Iturmendiko Udalak San Joan bezperan banatzen ohi ditu egur loteak edo epaitzak herritarren artean. Aurten moztu beharreko arbolak markatuta zeudenez, banaketa aurreratu egin du udalak. Guz-tira 38 epaitza banatu ditu.

URDIAIN

KALEJIRATIK AFARIRA PASAKO DIRA URDIANDARRAK

Urdiaindarrak domekan 19:30ean hitzordua dute herriaren etxean. Han elkartu eta txistularien doinura kalejiran San Joan ermitara jaitsiko dira. Segizioan hainbat neska gazte nabarmenduko dira, garai bateko jantziak jantzita izanen dituztelako. Haiekin batera dantzari txikiak ere izanen

dira. Ermitan meza izanen da eta hura despeditu ondoren ermitako plazan San Joan sua piztuko dute. Haren inguruan neska gazteek, borobilean jarrita eta elkarri eskua emanda, San Joan kantaita abestuko dute. Segituan dantzari txikiek dantzatuko dute eta ermita ingurutik alde egin aurretik auzatea izanen dute urdiaindarrak. Suak txikienak erakarriko ditu eta adar muturretan arto koskolei su ematen ariko dira. Saltoren bat ere izanen da. Behin herrian, udako solstizioa ospatzeko kuadrillak edo auzoka antolatu eta afariak eginen dituzte domekan.

Bestalde, udako solstizioa edo gaurik laburrena ospatzeko talde batek gaur, 19:30ean hitzordua jarri du igerilekuetan.

ALTSASU

SAN JOAN, BEZPERA ETA EGUNEAN JAI

Altsasuarrek udako solstizioa edo San Joan ospatzeko bi egun hartzen dituzte, domeka eta astelehena. Domeka iluntzean herriko karriketan hainbat su piztuko dituzte gainean salto egiteko eta afari-merienda prestatzeko. Altsasuko Udalak herritarrei gogorarazi die kaleetako zorua ez hondatzeko suaren oinarrian hareazko kapalodi bat egon behar duela (5 cm baino lodiagoa bada hobe). Udalak harearen bederatzi tokietan utzi du eta handik jaso dezakete altsasuarrek: Pilotajauku, Amandrea (hi-

lerria), Zubeztia, Zelai (Caixa zegoen tokia eta sutegia), Intxaurrondo (Eroski), Idertzagain (Xagu), Amaia (errotanda), Zumalakarregi eta Iortia (kultur gunea).

Domekako gaua askori asko luzatuko zaie. Batzuk etxeetan abardiak jartzeko baliatuko dute. Hala maite den pertsonari lizar adarra jartzen zaio, loreekin apainduta batzuetan. Gustuko ez den pertsonari, berriz, makala jartzen diete. Abardien ohitura gorde eta sustatzeko Altsasuko Udala lehiaketa antolatzen ari da azken urteetan. Udaletik gaztigatu dutenez, naturako materialik baliatu gabe, materialak berrerabiliz ere abardia presta daiteke. Jarritako abardiaren argazkia hilaren 26rako aurkeztu beharko da iortia@altsasu.net e-posta helbidera. Saria festetako herri bazkariarako lau txartel bikoitz izanen dira. Astelehena argitzearekin batera, bestalde, iratzeak mozttera joanen dira hainbat, ondoren etxe atariak iratze alfonbrez edertuko dituzte.

Egubera taldeak udako solstizioa ospatzeko, domekan, 19:30ean, Foru plazan sua piztuko du. Dantzariak, Zangitu fanfarrea, Kukuerreka kantu-poteo taldea eta bertsolariak izanen dira. Auzatea eskainiko dute.

DOMEKA 23

17:00 Etxajua San Joan plazan, trikitilariak lagunduta. Levelibunar taldearen *Portamundos* zirku ikuskitzuna eta haurrendako sorpresak, San Joan kalean.

17:30 Musika Eskolako batukada San Joan plazaraino.

18:30 Txokolate-jana, Roberto Urrutia eta bere mariatxiak taldeak girotuta.

19:30 Udalbatza, Altsasuko txistulariekin batera, udaletxetik San Joan ermitara abiatuko da.

Udako solstizioa ospatzeko festa, Foru plazan. Egubera taldeak antolatuta. 20:00 Auzatea.

20:30 Festaren hasiera: San Joango ermitan sua piztea.

Herriko suak pizteko etxaju iragarlea. Kalejira eta auzatea Foru plazaraino.

21:30 Beti Jai fanfarreak eta Txorongo txarangak suak dauden kaleak girotuko dituzte gauean zehar.

23:00-02:00 Dantzaldia Digital Trio taldearekin, San Joan kalean.

ASTELEHENA 24

20:00 Zortzikoa Altsasuko txistulariekin eta auzatea, Foru plazan.

22:30 Dantzaldia Haize Berriak bandarekin, Foru plazan.

OLATZAGUTIA

ITURRIRA LEHENIK, SALTATZERA ONDOREN

Udari harrera egiteko olaztiarrek Altzania magalean dagoen itur bedeinkatura joateko ohitura dute, Batueko iturrira. Hala egingen dute bihar 10:30ean jarri dute hitzordua. Burundar Txistulariek kalejira egingen dute eta soinu deiari erantzunez haiekin bat egin eta basorantz joko dute hainbatek. 11:00etan hamaiketako izanen da iturriaren inguruan eta, ondoren, olaztiarrek mahaia prestatu, suak piztu eta bazkariak prestatzeko ekinen diote. Mahaira 14:30ean eseriko dira kuadrillak. Handik ipurdiak mugiarazteko La Cigarra txarangaren doinuak baino ezer hoberik ez. Haien saioa despedituta herrira bueltatzeko garaia izanen da, baina aurretik sardina-jana izanen dute iturriaren inguruan.

Udako solstizioa saltoka ospatuko dute olaztiarrek. Domeka iluntzean karriketan suak piztuko dituzte eta gainean saltoka ariko dira.

ZIORDIA

ITUR BEDEINKATUAN ETA TXIPUDIAN

Udako solstizioa elkarrekin ospatzen dute olaztiarrek eta ziordiarrek Altzania magaleko itur bedeinkatuan edo Batuekon. Hura gogorarazteko hara joko dute domekan, 18:00etan. Udalak ziordiarrei auzatea eskainiko die iturriaren ondoan. Hura despedituta herrira jaitsiko dira eta zuzenean Txipudi parkera joko dute. 21:30ean herri-afaria izanen da eta 22:30ak aldera, su handi bat piztuko dute.

UHARTE ARAKILGO
SAN JOANAK

LAU FESTA EGUN AURRETIK



OSTIRALA 21

18:00 Festei hasiera emanen dien suziria, Uharte Arakilgo konpartas lagunduta, jarraian Donibane elkarrearen eskutik auzatea.

18:30 2018an jaiotako haurrei omenaldia eta zapi banaketa.

19:45 Uharte Arakilgo konpartsa eta gaiteroez lagunduta San Migueli ongi etorria.

21:00 10. Patata tortilla lehiaketa (tortillak 20:45etik 21:00etara aurkeztu behar dira). Jarraian haien dastaketa.

22:00 Zezenzuskua.

00:30-02:00 Dantzaldia Pilgrim's taldearekin.

02:00-04:00 Dantzaldia Balber dj-rekin.

LARUNBATA 22

10:30 Zamartza erromeria, Uharteko konpartsa eta gaiteroekin lagunduta. Jarraian auzatea.

14:30 Jubilatuen bazkaria, Andoni Gastaminzak girotuta.

15:00 Parrillada herrikoia San Juan

plazan (ogia, ardoa, mahaia eta aulkiak udaletxeak jarriko ditu).

19:00-21:30 Herriari itzulua Elektro-txufia taldearekin.

22:00 Zezenzuskua

00:30-04:00 Dantzaldia Gabenara taldearekin.

IGANDEA 23

11:00 Meza. Jarraian Uharte Arakilgo erraldoi eta buru-handien konpartsa eta auzatea.

13:15 Galtxorratx dantza taldearen dantza ikuskizuna.

17:30 Parkour ikuskizuna, San Juan plazan.

19:30 Aralar Mendi elkarteak eskainitako sardina- eta txistorra-jana.

20:00-22:00 Los Tenampas.

22:00 San Juan suak Uharte Arakilgo zarpantzar taldearekin.

ASTELEHENA 24

11:30 Meza. Jarraian erraldoi eta buruhandien konpartsa.

13:00 Uharte Arakilgo zortzikoa. Edozeinek parte har dezake. Jarraian auzatea.

14:30 Haurren bazkaria.

16:00-17:30 Haurrendako puzgarriak.

17:30 3 x 3 Aretoko futbol txapelketa.

19:00 Txokolate-jana.

20:00-22:00 Dantzaldia Ki dj-rekin.

22:00 Zezenzuskua.

00:30-04:00 Dantzaldia Kenbat taldearekin.

Arrautseko
-TABERNA-
Kale Nagusia, 5
31839 ARBIZU (Nafarroa)

Ongi pasa festak!

Kale Nagusia 5
31839 Arbizu
948 46 01 29

arbizuko
kanpineko
taberna

ONDO PASA JALETAN!

KANPINA

Erreserbak: 635 093 140

Bidali
zure argazkiak

661 523 245

guaixe

Ongi pasa festetan!

BAXERRI

Tel.: 948 460 737
Fernando Urkia Kalea 50
31839 Arbizu (Nafarroa)

JUANITO

JATETXEA

fernando urkia 19 arbizu
680 444 457

SAN JUAN ONAK PASA!

GONBIDATUTA ZAUNE

Ongi pasa sanjuanelan!

Razkin
Harategia

Gure Etxeko produktua

Gure etxean egindako txistorra, kroketak, jamon yorka....

Nagusia, 8
31839 ARBIZU (Na)

T.: 948 460 497
e-mail: razkinharategia@hotmail.com

FLORES S.L.

Ongi pasa festak!

Arbizuko ind. Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra

JANATXO

Ongi Pasa Festetan

EDUKO BAZKARI ETA POSTREAK
ENARGIZU BIDEZ PRESTATZEN DIRA

Fernando Urkia kalea, 29 - Arbizu -

• 686 654 382 •
• 666 616 303 •
• 687 371 939 •

Ongi pasa festetan!

Mari Jose
ileapaindegia

Arbizu
948 460 912
686 192 252



ARBIZUKO SAN JOANAK

ASTEBETE FESTA

Arbizuko festa igandean hasi eta heldu den larunbatean des-pedituko dira. Arbizuko Udaletik festetan ere herria garbi eta txukun mantentzeko hainbat aholku eman dituzte. Alde bate-tik, plazan iluntzero egiten diren merenduetan, mahaia jasotzean, sortutako zaborra sailkatuta jasotzea eta edukiontzietara botatzea proposatu dute. Bestetik, tabernetan kristalezko edo ber-rerabilgarriak diren basoak erabiltzeko gonbidapena egin du, poteoan erabilera bakarreko plastikozko edalontziak saihe-s-tea eskatu du. Eta gauza bera merenduetako plater, edalontzi eta sardeskekin.

IGANDEA 23

SAN JUAN BEZPERA

17:00 Pilota partidak. Sanfermineta-ko lau t'erdiko txapelketa.
19:00 Brindisa, plazan.
19:30 Suziria.
19:30 San Juan ermitara igoera Jaiak txarangarekin.
20:00 Bezperak San Juanen, Arbizu-ko eta Etxarriko abeslariak.
20:30 Marialonbreren zaldiya.
21:30 Jaitsiera Jaiak txarangarekin.
23:30-04:00 Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

ASTELEHENA 24

SAN JUAN EGUNA



Festak igandean hasiko dira Arbizun. ARTXIBOA

10:30 Diana Jaiak txarangarekin.
11:30 San Juanera igoera txaranga-rekin.
12:00 Meza nagusia San Juanen.
12:30-14:00 Puzgarriak eta buruhan-diak.
13:00 Aate, Aldabide.
13:00 Arbizuko dantzari txikiak.
13:30 Kalejira Jaiak txarangarekin.
16:30 Izozkiak haurrendako.
17:00 Ipuin kontalaria.
17:00 Kalejira Jaiak txarangarekin.
19:00 Zirika Zirkusen Txarlestrop ikuskizuna.
20:00 Aate.
21:00-23:15 Orkestrina Band jazpa-na.
23:00- 01:30 DJ.

ASTEARTEA 25, ASTEARTEA

JUBILATUEN EGUNA

10:00 Esku pilota partidak.
11:00 Diana.
12:00 Jubilatuen meza.
12:30-14:00 Puzgarriak eta buruhan-

diak plazan.
12:00 Aate, udala.
12:30 Jubilatuen aatea.
13:00-14:30 Puro Relajo taldearen kontzertua.
16:30-18:30 Tramankulo, haurrenda-ko jolasak.
19:00-20:30 Herriko musikariak.
20:00 Aate.
21:30-22:30 Dantzaldia Oharkabe taldearekin.
22:00 Zenezuzkoa.
23:00-02:00 Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

ASTEAZKENA 26

GAZTE EGUNA

11:00 Diana.
12:00 Aate, Argi Bidea.
12:30-14:00 Puzgarriak eta buruhan-diak plazan.
12:00-14:00 Serigrafia tailerra, 12 urtetik gorakoendako. Kamixeta txu-ria eraman.
13:00 Trikipotea.

14:30 Gazte bazkaria.
17:00-18:30 Trakamatraka, haurren-dako jolasak.
17:00 Kalejira Eletro Txufia elektro-txarangarekin.
19:00 Piperropilak.
20:00 Kontzentrazioa.
20:00 Aate.
23:00-02:00 Kontzertuak: Alerta Gorria, Ezetaerre eta Bull dj.

OSTEGUNA 27

HAURREN EGUNA

11:00 Diana.
12:00-14:00 Haurren jolas parkea.
12:30 Aate, jubilatuek.
15:00 Haurren bazkaria.
16:30-18:30 Haurren jolas parkea.
17:00 Mus txapelketa.
19:00 Lakuntzako dantzariak.
20:00 Aate.
20:30-22:00 Dantzaldia Ezten Giro taldearekin.
22:00 Zenezuzkoa.
23:30-02:00 Dantzaldia Ezten Giro taldearekin.

OSTIRALA 28

KINTOEN EGUNA

11:00 Kintuek pixket eskien.
11:00 Pala partidak.

12:00 Aate, udala.
12:30-14:00 Kulturartekotasun festa (talo tailerra, hennagilea...)
13:00 Arbizuko trikitilariak.
15:00 Kantuz bazkaria.
16:30-18:30 Adur herri kirol jokoak.
19:00 Herri kirolak.
20:00 Aate.
21:00-22:30 Jotatxo dj.
23:00 Kontzertuak: Beietz eta Briga-de Loco.
Ondoren dj.

LARUNBATA 29

11:30 Diana.
12:30 Puzgarriak eta buruhandiak.
12:30 Aate, Etxerat.
13:00 Paella lehiaketa.
15:00 Herri bazkaria bertsolariak: Eneko Lazkoz eta Julio Soto.
16:30-18:00 Zirko Basatia tailerra.
18:00 Broken Brothers Brass Band.
20:00 Manifestazioa.
20:00 Aate.
20:30-22:00 Tierri eta Terry dj-ak.
23:00-00:00 Kontzertua: Enkore.
00:30-03:00 Tierri eta Terry dj-ak.

LONBREN denda
Zure eguneroko denda

Aliprox

ONGI IBILI SAN JUANETANI!

Tel.: 948 460 330
Kale Nagusia - ARBIZU





ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Munduaren amaiera

Zibilizazioaren amaiera aurreikusi zuten aurrekoan 2050 urterako. Australiako Spratt eta Dunlop ikerlarien esanetan, aldaketa klimatikoak eragindako lehorteek uraren eskasia eta migrazio masiboak ekarriko dituzte. Lehengaien kontrolak eta mugimendu demografikoek eragindako gerrek, bertan behera utziko omen dute giza zibilizazioa. Gerra nuklearraren ondorio erradioaktiboak eta planetako eguratsaren kutsadurak, osasuna mantentzeko iragazki eta babes jantziz margotu digute etorkizun hurbila.

Berriak izan duen oihartzuna handia izan da sare sozialetan, ikerlarien eta hauen erakunde pribatuaren sinesgarritasuna eskasa bada ere. Gustuko ditu gure gizarte aldrebes honek mundu post-apokaliptikoak. Telesail eta bideojoko ugarik eskaintzen dute munduaren amaierak sortutako errealitate alternatiboa aspertutako hiritarrari. Zonbiekin edo haiek gabe, Mad Max film hartatik, dena pikutara joaten denean zer gertatuko denaren jakin mina piztu digute.

DENA PIKUTARA JOATEN DENEAN ZER GERTATUKO DENAREN JAKIN MINA PIZTU DIGUTE

Munduaren amaierak, gizartearen suntsitzeak, lege, arau eta mugen apurtzeak, askatasun ufada bat dira egunerokotasunak irentsitako adimenetan. Kontsumismoaren eta sare sozialen tiraniak baztertutik, nortasun berri bat eta

helburu sinple bat nagusitzen da, biziraupena. Baina mundu post-apokaliptiko horrek pantailatik jauzi egin eta gure egunerokotasunean berandu baino lehenago agertzeak beldurtzen gaitu. Ez dugu uste, izendatu berri duten Antropozeno deitutako aro geologiko berri honetan, ironikoki, bere izenaz bataiatu duen gizaki arro horren azkena izan daitekeenik. Badaezpada ere, hil arte bizi.

GUTUNAK: karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXE eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkeneko 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakzioara. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

OBJEKTIBOTIK



Kattalingorri, biyerko auri o iruzki txuri!

Gaur 17:54etan iritsiko da uda ipar polora, baina sanjuanetako suak piztu aurretik ikus ditzakegu gurean urtaro argitsuena datorrela iragartzen	duten ikurrak. Garia urre kolorerantz doa eta han hemenka aurki ditzakegu kataliñe, kattalingorri edo marigorriak.	Gaurtik aurrera eguraldiari gehiago erreparatuko diogu, eta Lakuntzan egiten den bezala, kattalingorriari galdetuko diogu euria edo eguzkia datorren.
---	--	---

BAZKIDE ZAREN HORI

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizugu denona dugun proiektu honetan sinetsi eta aurrera eramaten laguntzeagatik.

Zerbitzua hobetzeko hainbat kontu galdetu/eskatu nahi dizugu:

- Ba al duzu pegatina postontzian?
- Guaixea astero jasotzen al duzu?
- Ostiral goizean pdf-a nahi baduzu, eman zure e-posta.
- Etkez aldatu zara, helbide berria jakinarazi al diguzu?
- Kontu zenbakia aldatu duzu, berria bidali al diguzu?
- Zer da bazkide bezala faltan botatzen duzuna?

Gomendiorik ba al duzu? Entzuteko prest gaituzu eta gure ateak zuretzako zabalik daude!

Harremanetan jartzeko:

 948 564 275   661 523 245  admin@guaixe.eus

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Maria Luisa Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK











Ospakizunean bildutakoak. UTZITAKOA

Adonak hemetzortzi odol-emaileri aitortza egin die

Batek 150 alditan odola emateagatik, bik 100 emate egiteagatik eta 15 50 emateetara iristeagatik

IRURTZUN

Nafarroako Odol-emaielen Elkartek, Adonak, Odola Ematearen Mundu Eguna ospatu zuen igandean. *Odol segurua guztion dako* lelopean ospatu da aurten eguna. Adona elkartek aukera baliatu zuen gogorarazteko odol ematea, bere tratamendua, banaketa eta transfusioa oinarritzekoak direla gu guztion osasuna mantentzeko; “beraz odolaren eta odolaren osagaien emateen beharra etengabea eta ziurra da”. Adonatik aitortu zuten, “gizarte oso zorionekoak gara gure osasun sistema publikoa delako eta nahikoa teknika, ekonomia eta giza-baliabide dituelako gutako edozeinen osasuna hobetu eta bizitza salbatzeko”.

Ekitaldian hainbat nafar eza-gunek euren jarduna eta odol-ematea alderatu zuten. Bideoan agertu zenetako bat Iruñeko Orfeoiko zuzendari Igor Ijurra etxarriarra zegoen. Gainera, Adonako herrietako ordezkarien zereginari ere erreparatu zioten ekitaldian. Azkenik, aitortzen txanda iritsi ziren eta 200 domina banatu zituzten, haietako 18 sakandarrendako izan ziren (% 9, sakandarrak Nafarroako populazioaren % 3,11 izanik).

Hemezortzi aitortza sakandarrei

Urrezko domina hirukoitza (150 emate)
Luis Sarasola (Irurtzun)

Urrezko domina bikoitza (100 emate)
Manuel Azurmendi (Irurtzun)
Pilar Sanchez (Irurtzun)

Urrezko domina (50 emate)
Mikel Olló Gorriti (Irurtzun)
Manuel A. Viso (Irurtzun)
Puri Garziandia (Lakuntza)
Jose M. Mauleon (Etxarri A.)
Javier Ziordia (Bakaiku)
Alicia Zabala (Urdiain)
M^a Josefa Askargorta (Alts.)
Tomas Ezeolaza (Altsasu)
Isabel Maldonado (Altsasu)
Kati Mayor (Altsasu)
Juan Troyano (Altsasu)
Jose Maria Arguelles (Olazti)
Rosa Maria Ganuza (Olazti)
Pedro Mari Gonzalez (Olazti)
J. Antonio Gurmino (Olazti)



Unai Hualde Iglesias. NAFAR. PARLAMENTUA

Hualde Nafarroako Parlamentuko presidentea

Bigarren bozketan, berriz, Hualdek (Geroa Bai) 30 boto eta Iñaki Iriartek (UPN) 20 eskuratu zituzten

SAKANA

Nafarroako Parlamentuaren X. Legegintzaldiko aurreneko bileran hurrengo 4 urteetan erakundea gobernatuko duten lehendakaria eta Mahaia hautatu ziren herenegun. Foru ganberako presidentea Unai Hualde Iglesias da. Pasa den legegintzaldian Hualde Parlamentuko mahaiko lehen presidenteorde izan zen.

Araudiak dioenez, Parlamentua osatzen denetik hamar eguneko epean, Hualdek parlamentuan ordezkariak dituzten alderdi edo talde politikoei izendatu dituzten eledunekin kontsultak egin eta Foru Komunitaterako hautagai bat proposatu beharko du. Horretarako, osoko bilkura bat deituko du gutxienez 3 egun lehenago. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egin zirenetik (maiatzaren 24a) hiru hilabete igaro ondoren ez bada inor hautatu, Parlamentua deuseztatuko da eta hauteskunde berriak deituko dira berehala.



Larraza errektoretzako kideekin. NUP

Arbizuarra unibertsitate publikoko errektoretzan

Errektoreorde kargua ostiralean egindako ekitaldian hartu zuen Martin Larrazak

ARBIZU

Nafarroako Unibertsitate Publiko errektorea aukeratzeko hauteskundeak maiatzaren 9an egin ziren. Unibertsitateko komunitatea osatzen duten irakasleek, langileek eta ikasleek Ramon Gonzalo Garcia aukeratu zuten. Ostiralean egindako ekitaldian hartu zuen kargua. Eta berarekin batera bere zuzendaritza taldea osatuko duten 9 pertsonak. Tartean dago Martin Larraza Kintana. Arbizuarra Ekonomia, Plangintza eta Estrategia errektoreordea da.

Larraza Nafarroako Unibertsitate Publikoan enpresen kudeaketako irakaslea da eta pasa den astean Enpresen Kudeaketa Saileko “Enpresen Antolaketa” jakintza-arloko unibertsitateko katedradun izendapena jaso zuen. NUPen ardura postuak izatea ez zaio arrotza Larrazari, zortzi urtez unibertsitateko selektibitateko arduraduna izan zelako.

Irurtzungo festetako etxajurako bi hautagai daude

Herriko festetako hasierako etxajua zeinek piztuko duen erabakitzeke bi proposamen dituzte irurtzundarrek. Kultur Kontseiluak, alde batetik, Iratxo mendi taldea proposatu du, Sakanako Ibilaldi Handia mendi probaren antolatzen emandako 30 urteen-gatik. Etxajua pizteko beste proposamena Pablo Burgi da, “Irurtzunen jarduerak egiteko erakutsitako prestutasunagatik eta emandako laguntzagatik”.

Irurtzundarrek bi hautagaie-tako baten alde botoa emateko aukera dute astelehenera arte. Herrian errolatutako 16 urtetik gorako herritarrek dute botoa emateko aukera. Hiru bide daude horretarako: telefono mugikorretako Irurtzun aplikazioaren bidez, www.irurtzun.eus web orriaren bidez edo udaletxetik pasatuz. Botoa emateko nortasun agiria, lehen abizena eta jaiotze data eman beharko dira. E-mailtzaren berri aipatu aplikazioan eta web orrian emanen du udalak. Estreinakoz aukeratu da hala.

Enplegu bulegoan alde aurreko hitzordua indarrean

Altsasuko enplegu bulego berrian alde aurreko hitzordua atzo ezarri zuten ondorengo zerbitzuetarako: enplegu-eskatzaile gisa izena emteko, datuen eguneraketarako, enplegu-eskaintza aktibatzeke, informazioa eta aholkularitzarako (prestakuntza, gaitasunen egiaztapena, etab), orientazio profesionalerako edo gazteentzako laguntzetarako (lan edo ikasten ez duten 30 urte baino gutxiagoko gazteek). Enplegu eskaintza berritzeko ez da beharrezkoa hitzordua erreserbatzea. Hitzordua eskatzea www.empleo.navarra.es eta www.empleocitaprevia.navarra.es web guneetan edo 948 56 27 54 telefonoaren bidez tartez egin daiteke.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Zerbitzuaren aurkezpenean hainbat udaletako ordezkariak izan ziren. Oihana Gallo San Roman eskuinean eserita dago.

Berdintasun Zerbitzua lanean

Sakanako Mankomunitateak Berdintasun Zerbitzua aurkeztu du, Altsasuko Udalekoarekin elkarlanean ariko dena. 2018ko diagnosiaren ondoren uda pasata I. Sakanako Berdintasun Planaren diseinuarekin hasiko dira

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Aurreko legegintzaldi hasieran Sakanako Mankomunitateak udalen eskaera jaso zuen: Berdintasun Zerbitzua sortzea. Duela bi urte eskaera ofiziala egin zuten eta legegintzaldia despiditu baino lehen martxan zegoen, apirilaren hasierarako Oihana Gallo San Roman berdintasun teknikaria lanean zegoen. Sakanako 14 udalendako lan egingen du Gallok. Altsasuko Udalak Berdintasun Zerbitzua duela 25 urte pasa du eta kanpo gelditu da. Bi zerbitzuak "erabat koordinatuta" ariko direla jakinarazi zuen David Oroz Alonso Sakanako presidentek zerbitzu berriaren aurkezpenean.

Gallo ez da lanean hutsetik hasiko, joan den urtean Mank-eko egoeraren diagnosa egin baitzuen. Teknikariak azaldu zuenez, zerbitzu berriaren misioa

"ibarreko emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasun eta diskriminazioei aurre egitea izanen da". Hori lortzeko Berdintasun Zerbitzuaren egitekoa izanen da "berdintasunerako ibilbidea koordinatzea, kudeatzea, bulkatzea eta ebaluatzea. Bere eginkizuna ezinbestekoa izanen da biztanleriarengan parekidetasunaren bideko eraldaketa sustatuko duten prozesuak sortzeari begira". Legeari jarraituz, Mank-eko Berdintasun Zerbitzuak lau esparru eta lan lerroak landuko ditu: gobernantza eta genero

"AURRENEKOZ IBARREKO BERDINTASUN POLITIKAK EGINEN DIRA"

zeharkakotasuna; emakumezkoen kontrako indarkeria; zaintza, erantzunkidetasuna eta eginkizunak betearaztea eta emakumeen ahalduntzea, parte hartze soziopolitikoa eta balioen aldaketa.

Teknikariak nabarmendu zuten, "lehenengoz, Sakanako ikuspegia izanen duten Berdintasun politikak aurrera eramateko aukera izango da eta erronka honi aurre egiteko dagoneko hasi gara lanean". Batetik, Altsasuko Berdintasun Zerbitzuarekin elkarlanean ariko delako eta, bestetik, Mank-eko jardueretan genero ikuspegiaren zeharkakotasuna txertatzeko asmoa dutelako. Joan den urtean diagnosa egin zuten I. Sakanako Berdintasun Planaren diseinuarekin hasiko dira. Gallok deia egin zuen: "bidea egiten hasi den Zerbitzua da eta Ber-

dintasunaren bide honetan sakan-
dakar guztien konpromiso eta
parte hartzea ezinbestekoa izan-
go da".

Elkarlana

Indarkeria Matxistari aurre egiteko Estatu Itunetik 13.968,3 euro jaso ondoren, Sakanako eta Altsasuko Berdintasun Zerbitzuek elkarlanean aurreneko proiektua landu dute maiatzean eta garagartzaroan. Hala, emakumeen aurkako indarkeria kasuetan esku hartzen duten profesionalekin baliabideen egiazko koordinazioa ahalbidetzeko eta etorkizuneko Protokoloaren aurre diagnosa egiteko lan saioak egin ziren. 9 herrietako zinegotziek beste prestakuntza saio batean parte hartu zuten.

Burundako euskalkian askatu jarain esaten da. Eta, hain zuzen, hitz hori erabiliko da emakumeen kontrako indarkeriarekin lotutako informazio baliagarria eta Sakanako baliabideen berri emanen duen euskarri berri-tzaile batek, egun diseinatzen ari direna. "Jarain! Sakanako emakumeok aske, libre bizi nahi dugulako". Hitza gizarteratzeko asmoz, festetako kanpainarako erabiliko den leman ere agertuko da.

Festetan

Berdintasun Zerbitzuak uda partean sexu erasoen kontrako kanpainan egingen du honako leloarekin: Jarain! Eraso sexistarik gabe Sakana libre! Ibarreko festa guztietan indarkeriaren kontrako irudi bateratu bat jendarteratuko da bi helbururekin. Aurrena, festa egun eta eremuetan emakumeenganako eraso zein jazarpen aurka herriarrak sentsibilizatzeke. Hurrena, errealitate horren aurrean, instituzioen zein jendartearen konpromiso irmoa adieraztea.

Horretarako, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako esku morean oinarrituta, Sakanako herri bakoitzarendako irudi bat prestatu da, udalek egoki jotzen duten moduan erabiltzeko (egitarauan, kartelak,

pegatinak). Komunikazio kanpaina ere izan da eta indarkeria matxistaren kontrako esku moreak banatuko dituzte. Aldi berean, festa guneetan indarkeria sexistarik gabeko gunea jarriko da. Han indarkeria sexistari aurre egiteko bitartekoak eskura izanen dira eta sakan-darrek gaiak kontzientziatzea du helburu. Emagi elkarteko bi hezitzaile izanen dira 3 orduz, azalpenak eman asmoz. Azkenik, eraikin publikoetan jartzeko pankartak ere izanen dira.

Indarkeria sexistarik gabeko gunea

Sakanako
Mankomunitateko
Berdintasun Zerbitzuak
zehaztutako egutegia

Eguna Herria Ordua
• **Garagarrilak 29, larunbata**

Arbizu
00:00etatik 03:00etara

• **Garilak 20, larunbata**
Irurtzun

19:30etik 22:30era

• **Garilak 26, ostirala**

Olatzagutia

00:30etik 03:30era

• **Garilak 27, larunbata**

Bakaiku

00:30etik 03:30era

• **Agorrilak 3, larunbata**

Etcharri Aranatz

00:00etatik 03:00etara

• **Agorrilak 24, larunbata**

Lakuntza

01:00etatik 04:00etara

liburudenda / paperdenda

Fotokopiak
liburuak
jostailuak
opariak
eskulanak

Inprimagailuendako
kartutxoak

948 460 477
Larrañeta 19, Etcharri Aranatz



Makina bat arbizuarrek bat egin dute plataformarekin. MUNIA EL MARHOUM IRURETAGOIENA

Baldari babesa eskaintzeko, antolatuta

Arbizuarrarekin elkartasuna erakutsiz, Fran Baldaren babeserako Herri Plataforma eta antolatutako ekimenak aurkeztea izan du helburu elkarretaratzeak. Hilaren 29an, 20:00etan, Sakanako manifestazioa antolatu dute

Munia El Marhoun I. ARBIZU

Fran Balda Herrian plataformak prentsaurrekia eman zuen Arbizuko plazan ostiralean, 11-13 sumarioko 47 auzipetuei eta, bereziki, haien artean aurkitzen den Fran Balda Arañari, elkartasuna adieraziz. Horretaz aparte, plataformatik antolatutako ekimenak eta salaketak adieraztea ere izan zuen helburu agerraldi jendetsuak.

Arbizuarrari egozten zaion "delitu" bakarra "euskal preso politiko eta erbesteratuen eskubideen defentsa egin izana" dela aditzera eman zuten, euskal presoek aldeko bere konpromiso "zintzoa" goraipatuz. "Orain guri dagokigu Balda eta gainontzeko

46 auziperatuekiko solidario izan eta elkartasuna antolatzea", gehitu zuten. Gainera, prozesu guztiak Baldaren bizitzan izandako eragina salatu zuten.

Prentsaurrekia Fran Baldari eta egoera berean dauden gaitz nontzeko 46 auziperatuei inolako zigorrrik ez ezartzea eskatuz bukatu zen. Horrekin batera, "beraien absoluzioa euskal preso eta erbesteratuen auziaren konponketa azkartzeko pizgarria izan dadin" esperantza dutela ere adierazi zuten.

Ekimenak irailaren 16ra arte

Auziperatutako 47 euskaldunen aurkako epaiketa irailaren 16an hasiko da, eta data heldu bitartean

hainbat ekimen antolatu dituzte. Alde batetik, lehenengo Sakanako mobilizazio nagusia Arbizon, hilaren 29an, 20:00etan. Bigarren mobilizazio handi bat ere egingo dutela jakinarazi zuten, irailaren 7an, Arbizon hori ere. Epaike-tari buruzko informazioa zabalduko dute hainbat modutan, Sakanan, eta elkartasun sinbolo gisa zapi bat erabiliko dute.

Bestalde, irailaren 14an Bilbon izango den manifestazio nazionalera joateko deialdia egin zuten. Azkenik, 47 euskaldunek aurre egin beharko duten 350.000 euroko estimazioko esfortzu ekonomikoa kontuan hartuta, laguntzeko diru bilketa egingo dutela ere iragarri zuten.



Ospa mugimenduak agerraldi jendetsua egin zuen biharkoa iragartzeko.

Ospa mugimenduak biharko deialdi bikoitza egin du

12:00etan, autonomietako polizia indarren inguruko mahai ingurua eta, 19:00etan, manifestazioa

ALTSASU

Errepresioaren kontrako mugimenduak "autonomietako polizia indarren errepresio izaeraren inguruan hausnartzeko" mahai-ingurua antolatu du. Hitza lau hizlarik hartuko dute: Hodei Ijurko preso ohi etxarriarra, Ospa mugimenduko eta Iñigo Cabacas plataformako kide banak eta Kataluniako ezker independentistako ordezkaria. Ospako kideek argitu dutenez, hizlariak "polizia indar zipaioen errepresioa sufritu duten pertsonak dira". Iortia kultur gunean jarri dute hitzordua, 12:00etan. Mahai-inguruaren helburua da "polizia integralak Euskal Herriko okupazioan eta errepresioan beteriko papera aztertzea, eta gizartean betetzen duten funtzioaren inguruan hausnartzea".

Bestalde, 19:00etan, berriz, *Isunak, kontrol soziala... errepresioa. Noiz arte Foruzaingoa*

leloa duen manifestazioa egingen da. Azken protesta horrekin Ospa mugimenduko kideek "Foruzaingoaren errepresio zurrumbiloari akabera" eman nahi diote. Udalak eta Foruzaingoa sinatutako hitzarmenaren "eragina" salatuko dute. "Aurretik jada handia zen kontrol soziala ikaragarri areagotu da eta altsasuarrok Foruzaingoaren presentzia itogarria sufritu behar dugu. Horri guztiari Guardia Civilak duen presentzia agerikoa gehituta, Euskal Herria jazarria eta okupatuta jarraitzen duen seinale". Altsasuko errepresioaren kontrako mugimenduko kideen iritziz, Foruzaingoa "errepresio indar okupatzailea da. Guardia Civilarekin batera euskal herritarrak jazartzen dituen". Ospa mugimenduko kideek prestatu duten egun osoko egi-tarauan parte hartzera gonbidatu dute.

"Altsasu" Edinburgon

Edinburgh International Film Festival (EIFF) jaialdia herenegun abiatu zen. Altsasuko auziak EIFFn gaur tokia izanen du, izan ere, Eoin Wilsonen Altsasu film laburra aurkeztuko du. "Altsasuko zazpi gazteren oheek hutsik jarraitzen dute. Herriak inauteriak ospatzen dituen bitartean, Igonek bere semearen espetxeratzeari nola egiten dion aurre jasotzen da".



UTZITAKOA

Pintxo-pote lehiaketa antolatu dute gaztetxean

Altsasuko Isunen Kontrako Taldeak kuadrilla arteko pintxo-pote lehiaketa antolatu du. Aipatu lehiaketa joan den ostiral arratsaldean hasi zen eta hurrengo ostiraletan segida izanen du. Lehiaketako araudiaren arabera astero-astero kuadrilla batek pintxoak egin beharko ditu. Horiek jendeari gaztetxean eskaintzearekin

batera, edaria zerbitzatzeaz ere arduratu beharko dira. Pintxo-pote lehiaketan parte hartzen duten kuadrillek baldintza bakarra bete behar dute: gehienez 45 euro gastatu.

Ostiral arratsaldero gaztetxe-ko pintxo-potera joaten direnak izanen dira pintxoak baloratuko dituztenak. Lehiaketako azkeneko ostiralean jakinaraziko da zein den pintxo irabazlea. Altsasuko Isunen Kontrako Taldeko kideek "irabazlearendako sari zoragarria" iragarri dute.

Udalak 207.850 euroko inbertsioak egingen ditu

Aurrekontuan jasotako lanei joan den urteko aurrekontuan jasotako lanak ere gehituko zaizkie: Zeharbide kalean oinezkoen segurtasuna bermatzeko espaloia eta argiteria publikoan LED argiak jartzea. Udalak aurtan 3 langabetu kontratatuko ditu

OLATZAGUTIA

Olatzagutiko Udalaren aurrekontuak aurtan % 5 inguru egin du gora eta 1.915.180 euroko diru-sarrerak eta 1.908.880 euroko gastuak izanen ditu. Horien barruan, jakina, Musika Eskola eta kirol azpiegiturak kudeatzen dituen elkarte publikoa daude. Olatzagutiko Udalak joan den urtean 275.000 euroko superabita izan zuen eta diruzaintzan 1.943.000 euro ditu.

Legegintzaldiko azken aurrekontuak prestatzeko kontuan izan dituzten irizpideak azaldu dizkigu Mikel Azkargorta Boalek, aurreko alkateak: “zerbitzu publikoak mantendu eta hobetzea.



Olaztiarrak Zeharbide kaleko espaloiko lanetatik pasatzen.

Eta joan den urtean martxan jarri genituen parte-hartze aurrekontuak pixka bat indartzea. Gure ideia da urte batzuen buruan gauza asko herriak berak auke-ra ditzala”. Horregatik, parte-hartze aurrekontuen diru poltsa 20.000 eurotik 30.000 eurora pasa da. Non inbertitu erabakitzeke prozesua oporren ondoren izanen dela aurreikusi du Azkargortak, iraila aldera.

Joan den urtean aurreikusitako lan batzuk aurtan ari dira egingen eta, horregatik, udalak aurtan gastu handiagoa izanen duela azaldu digu Azkargortak. Argiteria publikoan LED argiak jartzen aurki hasiko ditu Aldakinek (237.009,58 euro) eta Zeharbide kalean oinezkoen segurtasunerako espaloia Arangoa kaletik Kamiogaina jubilatutako elkar-teraino luzatzeak (116.589 euro) udalari bi milioitik gorako gastua egitea ekarriko dio.

Inbertsioak

Alkate ohiak azaldu zigunez, “udalaldaketa dagoenez, genituen inbertsioak egitea eta aurretik genituenak mantentzea izan da irizpidea. Baina zertara bidera-

tuko diren zehaztu gabe, esaterako, azpiegiturak berritzeko, kiroldegia hobetzeko edo energia eraginkortasunarena. Udal berriak erabakiko du zehazki zertan inbertitu nahi duen diru partida horiek”.

Baso lanetara 45.000 euro bideratu ditu udalak eta foru administrazioaren % 50eko diru-laguntza jasoko du. Batetik, Bargan pista berri bat egingen da eta, gainera, beheko basoko pista nagusia hobetuko da. Bestetik, joan den astean egur enkantea egin zuen udalak eta Azkargortak esan zuenez, “oso ongi aterada”. Dermioko bideak eta herriko kaleak hobetzeko 30.000 euroa izanen ditu udalak. Energia eraginkortasuna hobetzeko neurrietarako 25.000 euro aurreikusi dituzte. Udalak, bestetik, hiru langabetu kontratatuko ditu.

Olatzagutiko Udalaren diru sarrerei dagokienez, zergen bidez herena jasotzea aurreikusi du, hau da, 637.100 euro. Nafarroako Gobernutik 542.440 euro, Egibil eta Koxkobilo harrobiengatik 301.000 euro eta Aldoiarkoagatik 71.040.





"Etorbizuneko erabiltzaile moduan" egoitzaren egoeraz kezka azaldu dute.

Pentsiodunak adinduen egoitzako egoerarekin kezkatuta

Egoitzaren parean kontzentratu ziren, "bezero potentzial gisa, zerbitzua hobetzeko indarrak biltzera" deitu dute

ALTSASU

Sakanako Pentsiodunen Koordinakundea Altsasuko Aita Barandiaran egoitzaren parean kontzentratu zen astelehenean. Egoitzan dauden gabezien berri izanik, zerbitzua hobetzearen aldeko elkarretaratzea egin zuten. Koordinakundeko ordezkariak ere egoitzako kudeatzailearekin elkartu zen euren kezka jakinarazteko.

Ibarreko pentsiodunen koordinakundeko kide Fernando Iriartek gogorarazi digunez, "duela 28 urte zabaldu zenean autonomoak ziren pertsonak etorri ziren egoitzara. Orain, berriz, egoitzan dauden pertsonen % 90 mendekotasuna du". Aldaketa horrek lan karga handitzea ekarri die langileei, baldintzak okertuz. Hori zuzendu ahal izateko Koordinakundeko kideek langile gehiago kontratatzea eskatu dute: goizeko eta arratsal-

deko lan txandetarako langile bana, garbitokian beste bat eta osasun-laguntzaile tekniko bat, goiz eta arratsaldeko txandak bete ahal izateko. "Duela bi urte plantillak egindako eskaera da", zehaztu du Iriartek.

Egoera bideratzeko konponbideaz galdetuta, Iriartek azaldu digu apirila eta maiatz aldera udalak eta Nafarroako Gobernuak esparru-hitzarmena sinatu behar zutela. "Ez dute sinatu. Garai aproposa da gure planteamendua egiteko. Guretako garrantzitsuek indarrak batzea da". Horregatik, Sakanako Pentsiodunen Koordinakundeko kideak adinduen egoitzaren egoera hobetzeko euren eskaera Altsasuko Udalera eramanen dute astelehenean (12:00etan parean kontzentratuko dira). "Guk pentsatzen dugu Sakanako Mankomunitateak inplikatu behar duela". Guztia zerbitzu hobea emateko.



Altsasu institutuko ikasleak Sakanako lan mundura hurbiltzen

Bigarren urtez Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuko 3. eta 4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak Sakanako langileekin kontaktuan jarri dira. Institutuko Guraso Elkar-teak joan den urtean egindako proposamena da ikasleek ibarreko lan mundua ezagutzea. Helburua hainbat lanbideren ezagutza eta formakuntzaren inguruan hausnartzea izan da. Izan ere, 3. eta 4. DBHko ikasleak erabaki garrantzitsuak hartzeko unean daude ibilbide akademi-koari dagokionez.

Eskezabalik hartu dituzte ikasleak lantoki guztietan; Guaixe, Etxegabeen aterpea, Aita Barandiaran adinduen egoitza, Sakanako Mankomunitatea eta Cocinas Lacunza izan dira ateak ireki dituztenak. Lanbide horien oinarrian pertsonak daudela nabarmendu dute guztiek, beti hobetzeko ahaleginean, etengabeko berrikuntza eta formakuntza.

Lanpostu bakoitzean duten formakuntza akademiko eta profesionala azaldu diete, eta ikasketak ibilbide bakoitzak irekitzen dituen ateak zehaztu. Denek azpimarratu dute norbanakoaren interesek eta motibazioak lanean asko eragiten dutela. Eta lanean, ikasketetan bezala, talde lana ezinbestekoa dela adierazi dute.



Aralarko kofradiak Deiherri etxea berritzea erabaki du

Aralarko Deun Mikel kofradiak bere urteroko bilera orokorra egin zuen igandean. Lehenik, azken urtean hildako kofrade guztien eta, bereziki, Inozenzio Aierbe zenaren oroimenezko eta kofradeen aldeko meza izan ziren, 11:00etan. Aralarko santutegian izandako elizkizunaren ondoren, zuzendaritzak proposatuta, kofradiaren estatutuetan puntu bat berritzea erabaki zuten. Hala, helburuen artean orain ere kultur eta turismo herrikoia bultzatzea daude.

Bestetik, kofradeek erabaki zuten Deiherri etxea berritzea, Santutegiarekin batera hau aurrera ateratzea. "Horrela toki berezi bat izanen du kofradiak aurrerantzean, artxiboa, bulegoa eta bilerak egiteko tokia". Eraikin hori Pedro de Artajona edo Pedro de Paris gotzainak kofradiari oparitutakoa da. Eraikina zaharberritzearekin batera, kofradia bera gaztetzeko asmoa adierazi zuten kideek. Kofradiako bazkide izan nahi duenak urtean 17 euro ordaindu beharko ditu. Hala egin nahi duenak Ustarrozi jakinarazi beharko dio 680 943 075 telefonora hots eginez edo cofradia@cofradidasanmiguelaralar.com e-postara idatzi dezake. Kofradiaren urteroko topaketa senidetze bazkariarekin despeditu zuten.

Korpus eguneko ospakizuna igandean izanen da

Corpus Christigatik etziko elizkizunak bereziak izanen dira. Aralarko santutegian, 12:30eko mezaren ondoren, elizatik aldameneko Trinitate ermitaraino prozesioa egingen dute. Joan-etorri horretan buru Gurutze Nagusiak eta Aralarko aingeruaren irudia izanen dira. Apaizak kustodia eskutan eramanen du eta Aralarko Deun Mikel Kofradiako kideek eramandako palioaren azpian joanen da. Haiekin batera fededunak ere izanen dira.

Lakuntzan Korpus eguna jai-eguna da. Egun horrekin kintoez, urtean bigarren, alkate dantza dantzatuko dute plazan, 19:00etan. Hura despedituta Iñaki Bizkaik dantzarako doinuak joko ditu. 19:30ean, gainera, Gure Nahia elkartearen sardina erreak jateko aukera izanen da. Arbizun egun horrekin prozesioa egiten dute eta etxeetako sarrerak majo edertuta izaten dituzte. Uhartea Arakilen estandarteak eta beste ateratzen dituzte egun horretan.

Hiriberriko Txitera elkartarekin Albira egun pasa

Txitera elkarteak antolatuta hiriberriarrak Aralarko Albi zelaira joaten direla 30 bat urte izanen dira. Bihar dira joatekoak. 08:30ean iturrian jarri dute hitzordua eta handik Berastegiko harrateko magaletik Aralarrera igoko dira. Handik Ata ibarrera joko dute eta hura gurutzatu ondoren, Artxueta atzetik pasa eta Albiko zelaira 13:00ak aurretik iritsiko dira. Batzuk oinez igotzen diren bitartean, bazkarirako beharrezko guztia ibilgailuan igoko dute besteek. Paella izanen dute oinezkoek eta sukaldariek. 40 bat pertsona elkartzen dira mahaiaren bueltan. Bazkalondoa ere musika ez da faltako, ezta ohiko futbol partida ere. Bukatutakoan herrira autotetan bueltatuko dira. Eguraldiak lagunduko ez balu bazkaria elkartearen egingen da.

Txitera elkarteak zuzendaritzak Sakanako Ibilaldi Handiaren ondorengo asteburuan Beriain mendira irteera eta bazkaria antolatzen ditu.

4,5 kiloko izokina

Bidasoan izokinak arrantatzeko sasoiak hilaen 30ean bukatuko da, edo 67 izokin hartzen direnean. Baina epea despeditu baino lehen argi ibili dira lakuntzarrak eta ostiralean primerako alea ekartzea lortu zuten. Javier Pazosek eta bere iloba Ander Agirrek 74 cm-ko neurria eta 4,5 kiloko pisua zuen izokin bikaina arrantzatu zuten Bidasoan.



UTZITAKOA



Ezkurdia eta Jaka, maiatzaren 4an Labriten jokaturako Buruz Buruko final laurdenetan. Arbizuarrak irabazi zuen, 22 eta 14.

Ezkurdia vs Jaka igandean Arbizun

PILOTA Sanferminetako lau t'erdiko Aspeko adarreko final laurdena jokatu du Joseba Ezkurdiak igandean Arbizun, Erik Jakaren kontra, San Juan festen hasierako suak piztu baino lehen. Baikoko adarrean Bakaikoak Olaizola du aurkari

Igandean hasiko dira San Juan festak Arbizun, baina ermitara joan baino lehen arbizuar asko Arbizuko kiroldegiko frontoian bilduko dira, 17:00etan, Sanferminetako lau t'erdiko Aspeko adarreko final laurdenez gozatzeko; partida horretan Joseba Ezkurdiak Erik Jaka izango du aurkari.

Jaialdia zabaltzeko, lehenik eta behin, Retegi Bik eta Jaunarenak Peio Etxeberria eta Erosarbe izanen dituzte aurkari. Ondoren, Sanferminetako lau t'erdiko final laurdenetako partidari, Joseba Ezkurdiak aurreko igandean Iker Irribarria 8 tantotan utzi zuen Erik Jaka izango du aurkari.

Erik Jakak goitik behera egin du azken urtean. Maiatzaren 4an jokaturako Buruz Buruko Txapelketako final laurdenetan Joseba Ezkurdiak ere lizartzarra izan zuen aurkari, eta nahiz eta arbizuarra gailendu, 22 eta 14, ez zen garaipen erraza izan eta Ezkurdiak berak aitortu zuen "sufritu" egin zuela.

Hortaz, nahiz eta iganderako Joseba Ezkurdiak faborito izan, Erik Jaka ez da edonolako aurkaria eta gauzak oso zail jarriko dizkio arbizuarrari. Espero dezagun herrian jokatzeko Ezkurdiari mesede egitea, eta garaipena lortzea, arbizuarrak txapelketan aurrera egiteko eta Arbizuko festak gogotsuago ospatzen hasteko.

Sarrerak

Aurretik, entradasfronton.com web gunean, Arbizuko udaletxean, goizeko 9:30etik 14:00etara, eta Eroskin, 17:00etatik 19:00etara. Igandean Kiroldegiko tabernan, 16:00etatik aurrera.

Bakaikoak Aimar Olaizola du aurkari Baikoko adarrean

Larunbatean Sanferminetako lau t'erdiko Baiko adarreko final zortzirena jokatu zuten Joanes Bakaikoak etxarriarrak eta Unai Lasok Zubirin. Etxarriarra aurreratu zen, baina Lasok 13 eta 14 gerturatzea lortu zuen. Hortik aurrera Joanes Bakaikoak hobeto aritu zen; partida serioa egin zuen, errematean ongi aritu zen eta akats gutxi egin zituen, soilik 2 pilota galdu zituen. Aldiz, Lasok akatsak pilatu zituen –guztira 9 akats egin zituen– eta 18 eta 22 irabazi zuen Bakaikoak. Etxarriarrak Baikoko final laurdena jokatu du igandean, 17:00etan Beasainen, Olaizola II.aren kontra. Sorpresak ematen jarraitzeko prest dago etxarriarra.

Sanferminak: Ezkurdia Zabaletarekin eta Martija Irribarriarekin

Astelehenean Sanferminetako pilota feria aurkeztu zuten. Binakako torneoan 6 bikotek hartuko dute parte, lehen multzoan Olaizola II.a-Albisu, Bengoetxea VI.a-Imaz eta Irribarria-Martija eta bigarrenetan Altuna III.a-Ladis Galarza, Ezkurdia-Zabaleta eta Urrutikoetxea-Mariez-kurrena II.a. Elezkano II.aren eta Rezustaren hutsunea izan zen sorpresetako bat, Mariezkurrena II.aren hautaketarekin batera. 2018ko Binakako txapel-dunak, Ezkurdiak eta Zabaletak, atzera ere bikoa osatuko dute.

Sanferminek erakartzen dute, asko. Jaialdietako sarrerak salgai daude entradasfronton.com web gunean eta apenas ordu batean %80a saldu zen.

Aspek ez du Lasa berrituko

Adur Lasa pilotari etxarriarrak Asperekin duen ibilbidea ekainaren 24an despedituko da. 25 urte ditu Adur Lasak eta duela bi urte debutatu zuen Eibarren Aspe enpresarekin, afizionatueta ibili ondoren eta Garfe enpresako hainbat jaialdietan parte hartu eta gero. Azaroan mina hartu zuen etxarriarrak. Akilesen tendoia apurtu zuen, eta ordutik lesioaz osatzen zebilen, baina Aspe azaldu dio ez diola kontratua berrituko.



IRURTZUN

Irurtzuno txapelketako bat Olaetxearendako

PILOTA Irurtzuno Trinitate festetan jokatu ziren Irurtzun pilota klubak antolatutako pilota txapelketetako finalak. Aurten lehenengoz antolatutako emakumezkoen I. Domingo Nagore Memorialeko finalean Iera Agirre gailendu zitzaion Maite Ruiz de Larramendi beteranoari, 14 eta 22. Ondoren gizonezkoen XXVII. Irurtzuno eta Arakilgo Txapelketetako finalak

jokatu ziren. Promesen mailan Olaetxea unanurrak eta Apezetxeak 22 eta 17 irabazi zieten Ruiz de Larramendi eta Azkarragari eta seniorretan, Iriartek eta Sarasak 12 tantotan utzi zituzten Uribe eta Arbizu etxarriarra. Sari ematean Zabaleta pilotaria, Nagore pilotari ohia eta bere ama, Irurtzuno alkatea eta pilota munduko hainbat ordezkari izan ziren.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 480 037 Arbizun
948 483 411 Altsasun

Auto berri eta bigarren eskukoak
SALMENTA

Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margolzea

Tritoiena: Vegas anaiak eta Oiartzabal nagusi

MENDI LASTERKETAK Arbizuko kanpinean jokaturako lasterketan 65 korrikalari aritu ziren eta minutu bateko isilunea gorde zen aurtan zendutako Joxe Mari Merceroren omenez. Joxeja Maiza (2:00:06) eta Maitane Txueka (2:47:59), lehen sakandarrak

Eguzkiak gogoz jotzen zuela jakatu zen, igandean, Arbizuko kanpinak eta Dantzaleku Sakana klubak antolatutako III. Tritoiena mendi lasterketa (20,65 km eta 1.348 metroko desnibel +). Proba ikusgarrian 65 korrikalari aritu ziren guztira, eta lanari ekin baino lehen, korrikalariak minutu bateko isilunea gorde zuten aurtan zendutako Joxe Mari Merceroren korrikalari unuarraren alde, bezperan Iturmendiko Aitzkoarren bezala. Ondoren ekin zioten probari, eta korrikalariak Ondatz, Unanu eta Beriain igo zituzten, Uharte Arakilgo portutik Beriaingo jaitsierari ekiteko eta Ondatzetik Arbizuko kanpinera heltzeko.

"Oso polita"

Azkarrenak Jon Vegas eta Xabi Vegas anai biki aguraindarrak izan ziren. Beriainera Jesus Mari Alegriarekin batera joan ziren, aurreratuta, baina jaitsieran Alegria atzean geratu zen eta 24



Korrikalari guztiek probaren edertasuna nabarmendu zuten. MUNIA

urteko bi anaiek elkarrekin segitu zuten aurrera. Jon Vegas izan zen azkarrena (1:49:04), bere anaia Xabiri 7 segundo aterata (1:49:11). Jesus Mari Alegria sartu zen hirugarrena (1:55:12), eta Joxeja Maiza etxarriarra laugarrena (2:00:06), probako lehen sakandarra. Jon Vegasek aipatu zuen asko gustatu zitzaizela proba. "Oso polita izan da. Erritmo onean hasi gara, eta gu biok eta Alegriak batera egin dugu aurrera. Beriaingainean izugarri

polita zegoen guztia. Jaitsieran aurrea hartu diogu hirugarrenari eta azkenean anaiak ezin zuen erritmoa jarraitu eta bakarrik sartu naiz. Aurrekusi gabeko garaipena izan da, baina sentsazio onak izan ditut, zortea alde eta irabazi dut. Ederra izan da, itzuliko gara" nabarmendu zuen.

Sakandarrak

Gizonak

1. Jon Vegas	1:49:04
4. Joxeja Maiza	2:00:06
5. Jokin Bereziartu	2:00:10
6. Jabi Gasanz	2:00:11
7. Alatz Agirre	2:00:56
11. Iker Flores	2:08:37
14. Fran Araña	2:10:07
17. Ioseba Iza	2:12:23
20. Kepa Gordo	2:13:57
26. Asier Leitza	2:25:25
35. Mikel Senar	2:34:19
43. Josean Guzman	2:51:39
44. Gorka Ansa	2:53:27
45. Urko Rekalde	2:53:46
46. Andoni Gonzalez	2:54:56
48. Sergio Goñi	2:58:35
52. Ioni Araña	3:03:40
53. Sergio Tere	3:04:45

Emakumeak

1. Lourdes Oiartzabal	2:11:23
4. Maitane Txueka	2:47:59

*Oharra: Sailkapenean ez zen korrikalarien jaioterria agertzen



Maitane Txueka indar betean. MUNIA

polita zegoen guztia. Jaitsieran aurrea hartu diogu hirugarrenari eta azkenean anaiak ezin zuen erritmoa jarraitu eta bakarrik sartu naiz. Aurrekusi gabeko garaipena izan da, baina sentsazio onak izan ditut, zortea alde eta irabazi dut. Ederra izan da, itzuliko gara" nabarmendu zuen.

Emakumezkoetan 45 urteko Lourdes Oiartzabal korrikalari beterano gipuzkoarra gailendu zen (2:11:23), Zutoia Odriozola (2:32:06) eta Nuria Mendivilen

aurretik (2:37:55). Maitane Txueka arbizuarra laugarren eta lehen sakandarra izan zen (2:47:59). 45 urteko Lezoko korrikalaria, Oiartzabal, lehenengo aldiz aritu zen Tritoienan. "Ederra da, oso polita, ibilbidea ikaragarri gustatu zait. Beriain Uharte Arakilgo Km Bertikala igotzetik ezagutzen nuen, baina hango aldetik, ez hemendik, eta asko gustatu zait. Oso gustura ibili naiz, sentsazio onekin, eta errepikatze moduko lasterketa da" nabarmendu zuen.

Maria Loizu eta Ion Urra garaile Irurtzungo Trinitate igoeran

MENDI LASTERKETAK Ergako maldetan jendetza zegoela jokatu zen Ergako Trinitate Igoera

Guan taldeak, Irurtzungo Udaren eta hainbat babesleren laguntzarekin antolatuta, larunbatean jokatu zen Trinitateko Igoera, izen bereko festei hasiera emanez.

Goizeko 9:30ean korrikalariak biltzen hasi ziren, dortsalak jaso eta 10:00etan hasiko zen probarako prestatzeko. Aska plazatik aterata, Ergako Trinitateko baselizara igo behar ziren, banaka, kronometratutako proba baita (3 km, 500 m desnibel +). Eguraldia lagun, jende asko bildu zen Ergarako bidean, proban aritu

ziren korrikalariak animatzera, eta sekulako giroa sortu zen.

Denbora oso onak

Guan taldeko Roberto Martilek adierazi duenez "sekulako giroa egon zen, beti bezala, eta kronoigoeran denbora bikainak egin ziren".

Gizonezkoetan Ion Urra izan zen azkarrena (23:28), Imanol Kañamarezen (24:13) eta Mikel Rubioren (24:18) aurretik. "Egia esan, sorpresa eman du Ion Urrak, Kañamare eta Rubio faboritoak baitziren, aurreko edizioetan



Primerako giroa egon zen Trinitate igoeran eta korrikalariak sekulako denborak egin zituztela esan digu Martilek. ITZALAK

garaileak izan baitira, baina Urrak erritmo biziarekin osatu zuen proba, eta merezitako garaipena lortu zuen" aipatu digu Martilek. Emakumezkoetan, Maria Loizu (28:19) gailendu zitzaizen Haizea Ramirez de Alda

altsasuarrari (28:39) eta Amaia Seminariori (32:49). "Loizuk bigarren urtez jarraian irabazi zuen, baina Ramirez de Alda gertu izan zuen, biek denbora bikaina egin baitzuten" azaldu du Martilek.

Bukaeran, Ergako gainean bildu ziren korrikalari guztiak eta ikusleak eta hamaiketako bikainaz gozatu zuten. Talde argazkia ateratzeko tarteak izan zuten eta ondoren herriko bidea hartu zuten, festarekin segitzeko.



Munarritz, hasi baino lehen. UTZITAKOA

Katarain 2.a eta Munarritz 10.a Tolosako 3 Tontorretan

MENDI LASTERKETAK Euskal Herriko Txapelketan ikaragarri aritu ziren sakandarrak

Ikusgarri. Horrela aritu ziren igandean Tolosako 3 Tontorretan (43,5 km eta 2.800 metroko desnibel +) Beñat Katarain lakuntzarra eta Aritz Munarritz etxarriarra. Tolosako mendi maratoia, aldi berean, Euskal Herriko Txapelketa zen.

Ait Chaouk sekulako erakustaldia eman zuen. Uzturregainean ia 7 minutuko aldea atera zuen, gero txikitzen joan zena. Hala ere, lehena iritsi zen helmugara (4:05:40), eta Beñat Katarain bigarrena sartu zen, lau minutu pasatxora (4:09:58). Aritz Munarritz etxarriarrak ere proba ikusgarria egin zuen eta 10.a sartu zen (4:35:10). Emakumezkoetan Amaia Amantegi gailendu zen (4:48:36), errekor berriarekin.

Sakandarrak Gasteizko Mendietan (62,31 km)

Igandean Gasteizko Mendietan Ultra traila jokatu zen Uribarri Jauregin (62,310 km). 781 korrikalarik osatu zuten proba, Alvaro Ramos (5:49:51) buru zela. Jose Julian Lopez 69.a sailkatu zen (7:16:11), Aitor Salinas 203.a (8:28:59), Noureddine Jdi 294.a (9:11:50), Jose Salgado 461.a (10:14:09) eta Felix San Roman 465.a (10:15:28). Emakumezkoetan, Lur Basterretxea gailendu zen (7:03:52).

Mercero gogoan Aitzkozar lasterketan

ATLETISMOA Proba hasi baino lehen minutu bateko isilunea gorde zen Unanuko korrikalari beteranoa zenaren alde, bere senitartekoei aureskua eskaintzearekin batera. Daniel Sanz eta Aitana Gil gailendu ziren proba nagusian

Larunbat arratsaldean, eguraldi bikainarekin, jokatu zen 15. Aitzkozar herri lasterketa. Aurten Iturmendiko Aitzkozar elkarteari zegokion proba antolatzea, Bakaikuko Bakarrekotxea elkartearekin antolatzen baitute elkarlanean, eta, horretaz gain, Dantzaleku-Sakana atletismo taldeak ere laguntza eman zuen antolakuntzan. Ohi denez, lehenik eta behin kategoriatik txikiko lasterketak jokatu ziren, eta 60 neska-mutiko animatu ziren lasterketetan parte hartzera.

Ondoren, 18:00etan, proba nagusiaren txanda izan zen (8,1 km), baina bertan aritu ziren 47 korrikalariak abiatu baino lehen, Joxe Mari Mercero, Unanuko korrikalari beteranoa zena omendu nahi izan zuen antolakuntzak. Bere senitartekoak bertan zirela –Maixabel Lasa emaztea, Jose Mari eta Patxi semeak, ilobak eta Paco Mercero anaia– sarritan Aitzkozar proban aritu zen Merceroaren alde minutu bateko isilunea gorde zen, aureskuarekin despetitu zena.

Iturmendi eta Bakaiku arteko ibilbide gorabeheratsuan 4 km pasako zirkuitua prestatu zuen antolakuntzak, eta jubenilek itzuli bat (4,05 km) eta helduek bi itzuli (8,1 km) egin behar izan zituzten. Proba nagusian aurreko urteko irabazlea, Daniel Sanz iruindarra (28:11) gailendu zen, Raul Audikana iturmendiarraren (28:53) eta Javi Morenoren (29:49) aurretik. Sanzek Mercero izan zuen gogoan. "Lasterketa hau, Aitzkozar, berarekin batera aritu nintzen lasterketa izan zen" aipatu zuen Sanzek, eta bere taldekide zenari eskaini zion garaipena.

Emakumezkoetan Cabanillas-ko Aitana Gil nagusitu zen nagusitasun osoz (32:14), Uharte Iruñeko Henar Etxeberriaren (36:34) eta Erkuden San Martin etxarriarraren aurretik (36:56). Jubeniletan Haizea Artola itur-



Joxe Mari Merceroaren senitartekoak, haren aldeko omenaldian. AITZKOZAR



Proba nagusiko irabazleen podiuma, sakandarrak tartean. AITZKOZAR

mendiarrak izan zen irabazlea, Estitxu Mateoren aurretik.

Kategoria txikiak

Kimuen mailan, gizonezkoetan Asier Larragueta, Janitz Zufiaurre eta Ixen Saez de Adana izan ziren azkarrenak, eta emakumezkoetan Paula Caño, Jone Goikoetxea eta Kelen Aldasoro. Aurrebenjaminen mailan, gizonezkoetan Axio Saez de Adana, Wail Naciri eta Hegoi Artieda

sartu ziren aurrean eta emakumezkoetan Maddi Arbizu, Irati Aguado eta Maddi Barandiaran. Benjaminen mailan, Aratz Mendoza, Ekhi Arbizu eta Xuban

DANIEL SANZ IRABAZLEAK BERE TALDEKIDE ZENARI, MERCERORI, ESKAINI ZION GARAIPENA

Sakandarrak

Gizonak

1. Daniel Sanz (Antsoain)	28:11
2. Raul Audikana (Olaz)	28:53
3. Javi Moreno (Alts)	29:49
4. Joxeja Maiza (Etx)	30:33
6. J.C. Gomez (Alts)	31:30
7. F. Gomez (Alts)	31:31
8. Iñaki Alvaro (Alts)	31:41
9. Gaizka D. Garaio (Bak)	32:53
10. Joseba Galarza (Itur)	33:40
11. Fidel Jimenez (Etx)	34:33
12. Ekain Alegre (Alts)	35:04
14. Jurgi Flores (Zior)	36:22
15. Juan P. Ariz (Bak)	36:59
16. Manuel Larraza (Etx)	37:03
17. Peio Bergara (Alts)	37:44
18. J. Bengoetxea (Alts)	38:33
20. Aitor Mendia (Itur)	39:56
21. Jonathan Medina (Itur)	40:31
22. Raul Mendoza (Zior)	40:42
24. Iñigo Orella (Etx)	42:03
26. G. Auzmendi (Unanu)	43:03
27. Pedro J. Zelaia (Arb)	44:41
28. F. J. Negrin (Bak)	44:42
30. Lander Urriza (Bak)	52:48

Emakumeak

1. Aitana Gil (Cabanillas)	32:14
3. Erkuden S. Martin (Etx)	36:56
4. Daiana Perkaz (Alts)	37:43
7. Maite Zabaleta (Etx)	46:39
8. Edurne Luis (Bak)	47:39
9. Arantxa Otamendi (Bak)	47:39
10. Nagore L. de Z. (Bak)	48:05
11. Esther Aiestaran (Bak)	49:46
12. Haizea Galarza (Bak)	55:46



Kategoria txikikoak, gustura. AITZKOZAR

Mendia gailendu ziren, eta emakumezkoetan Nahia Olaitz, Eider Gastesi eta Andrea Bujan. Haurren mailan, gizonezkoetan Iker Caño, Miteku Jaka eta Xabier Moreno sartu ziren lehenak eta emakumezkoetan Iratxe Lapuente, Malen Gorrotxategi eta Nahia Urain. Azkenik, kadeteetan gizonezkoetan Roberto Jerez, Manex Zufiaurre eta Xabier Pinto gailendu ziren eta, emakumezkoetan, Veronica Caño.



Eliteen esprint ikusgarrian, photo finisha behar izan zuten irabazlea izendatzeko.

Emakumeen goi mailako ikuskizuna Lakuntzan

TXIRRINDULARITZA Esprint ikusgarrietan despeditu ziren kadeteen, juniorren eta eliteen lasterketak

Hasieratik ikusi ahal izan zen larunbatekoa ez zela edonolako lasterketa, izan ere, emakumezkoen tropeleko onena elkartu zen Sakana Group-Aralar Txirrindularitza Taldeak antolatutako III. Lakuntzako Emakumeen Trofeoan. Emakumezkoen Euskaldun Torneorako baliagarria zen lasterketan, argi geratu zen emakumezkoen txirrindularitzak inbidia gutxi izan behar diola gizonetzkoenari, baliabideetan edo soldatetan ez bada.

Antolakuntzak bi ibilbide prestatu zituen. Lehen ibilbideak, Lakuntza, Arruazu eta Uharte Arakil artekoak, 11,1 km zituen, eta bigarrenak, Lakuntza, Arbizu, Unanua eta Lakuntza artekoak, 16,3 km. Bi ibilbideak konbinatuz osatu ziren probak.

Kadeteek lehen zirkuituari bi itzuli eta bigarrenari bat eman zizkieten (38,5 km). Tropela batera iritsi zen eta helmugako

esprint indartsuan Sandra Gutierrez (Bioracer, 1:04:59) gailendu zitzaion Laia Puigdefabregas (Nafarroa Ermitagaña) eta Lucia Ruizi (Rio Miera, Cantabria).

Ondoren afizionatuak atera ziren. Lehen zirkuituari 4 itzuli eta bigarrenari itzuli bat egin behar zizkieten (60 km), eta lehen zirkuituari itzuli bat egitera zihoazela, juniorrak gehitu zitzaizkien probara (49,6 km).

Tropela batera iritsi zen, eta esprint ikusgarrian –epaileek photo finisha egin behar izan zuten– Eneicue Women Cycling Team-eko Ziortza Isasi gailendu zitzaion Sopela Women's Team-eko Sofia Rodriguez eta Bizkaia Durangoko Lucia Gonzalez (1:30:39). Juniorretan Gipuzkoa-Ogiberriko Garazi Estevez izan zen txapelduna, Murias-Limousin-eko Naia Amondarainen eta CAF Turnkey Engineering-eko Julia Sanchezen aurretik.



Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko juniorrak eta kadeteak, Nafarroako erlojupeko txapeldunak. BURUNDA

Quesos Albenizkoak erlojupekoan onenak

TXIRRINDULARITZA Igandean Tafallan jokaturako Taldekako Nafarroako Erlojupekoa irabazi zuten Burunda klubeko taldeek, kadeteetan eta juniorretan. Juniorretan Sakana Group-Aralar taldea hirugarrena sailkatu zen

Igandean taldekako erlojupekoa jokatu zen Tafallan, kadeteen eta juniorren mailakoa. Kadeteek 15 kilometroko ibilbidea egin zuten, eta juniorrek 22,4 km-koa.

Kadeteetan Burunda klubeko Quesos Albeniz taldean Hugo Aznar, Jon Chamorro, Oihan Etxeberria, Julen Guerrero, Unax Trevejo, Mikel Uncilla, Ander Villalobos eta Sergio Lopez txirrindulariek eman zuten izena eta Sakana Group Aralar taldean Jon Erdoziak, Alex Lopetegik, Aitor Ondarrak, Aimar Tadeok, Mikel Yeregik eta Martxel Etxeberriak. Lan ikusgarria egin eta gero, Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeak irabazi zuen Nafarroako Taldekako kadeteen

mailako erlojupekoa (20:55), El Proex taldeari 12 segundo aterata (21:07). Sakana Group Aralar Txirrindulari Taldea zortzigarrena sailkatu zen, ia bi minututara (22:42).

Juniorretan, Quesos Albeniz taldean Diego Gonzalo, Jonathan Felix Vega, Unai Aznar, Iker Mintegi, Willy Ismael Torres eta Unai Villalobos aritu ziren, Sakana Group-Aralar taldean Aitor Alberdi, Igor Arrieta, Inhar Astitz, Urko Gorriti, Mikel Lizasoain eta Unax Miranda zeuden izena emanda, eta Beola Motor taldean Mikel Arretxe arbizuarra eta Lizarte Ermitagaña taldean Jon Gil lakuntzarra aritu ziren. Kadeteetan bezala, Quesos Albeniz

izan zen junior mailako txapelduna (31:24), baina kasu honetan alde txikiagorekin, Asesores de Navarra taldeari 3 segundo (31:27) eta Sakana Group-Aralar taldeari 8 segundo (31:32) atera baitzizkion Burundak. Jon Gilen Lizarte Ermitagaña 4.a sailkatu zen (31:44) eta Mikel Arretxeren Beola Motor 7.a (33:10).

Lasa eta Etxeberria Euskadiko Txapelketan

Igandean Sabin Foruria Memoriala jokatu zen Markinan, Euskadiko Txapelketa. 23 urtez azpikoan Goierriko TB-Laboral Kutxako Ailetz Lasa 8.a sailkatu zen eta Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Josu Etxeberria 18.a.

IGERIKETA Sakana Igeriketa Taldean izena ematea zabalik

Sakana Igeriketa Taldean izena emateko epea zabalik dago irailaren 12ra arte. Interesatuak Whatsapp mezua bidali dezakete 644 92 50 22 telefonora edo e-posta bidali sakanaigeriketataldea@hotmail.com posta elektronikora. Bertan emango dituzte beharrezko argibide guztiak, Sakana Igeriketa Taldeko informazio guztia, ordutegiak eta beste.

20 sakandar surfean

SURFA Sakanako Mank-eko Kirol Zerbitzuak lehenengoz antolatutako surf hastapen ikastaroa asteburuan izan zen. Zarauzko Moor Surf eskolako enanetara 20 pertsona trebatu ziren eta "ederki" pasatu zutela azaldu du Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak. "Pixkat ikasi dugu eta orain nahi duenak bere aldetik jarrai dezake sakontzen" gaineratu du.



SAKANAKO MANKOMUNITATEA



Imanol eta Tatono Arregi, astearteko prentsaurrekoan. XOTA

Xotak zailtasun ekonomikoak dituela azaldu dute arregitarrek

ARETO FUTBOLA Xotako presidente Tatono Arregik eta entrenatzaile Imanol Arregik eman zituzten xehetasunak

Xotak aurrera egiteko "zailtasun ekonomiko serioak" dituela nabarmendu zuten asteartean Xotako presidente Tatono Arregik eta taldeko entrenatzaile Imanol Arregik. "Klub hau ezin da aurretik hitz egindakoaz bizi, itxaropenez bizi" gaineratu zuten.

"Plantillaren eskeletoa berri-
tzeke sekulako arazoak ditugu, beste talde batzuekin alderatuta, eta ez soilik Inter, El Pozo edo Barcelona bezalako taldeak" aipatu zuen Tatono. Presidenteak gaineratu zuenez, babesle eta esponsorrekin bildu dira, baita Osasunarekin ere, egoeraren berri emateko. "Egungo errealtatearen berri eman diegu eta argi dugu eurengan dagoela konponbidea" azpimarratu zuen.

Usin eta Saldiseren berritzea, airean

Osasuna Magna Xotak ez daki oraindik zein aurrekontu izango duen hurrengo denboraldirako, eta talde berdeak oraindik ez daki zein plantilla izango duen. Alex Diz hegaleko jokalariz gaziarraren, Adri Ortego defentsa madrildarraren eta Edu Souza atezain portugaldarraren bajak bete behar ditu taldeak, eta, horretaz gain, taldearendako ezinbestekoak diren bi jokalariren —Rafa Usin eta Dani Saldise— berritzeak ditu mahai gainean.

Bi jokalariren hauen, Eric Martelen eta Roberto Martilen kontratuak hurrengo denboraldian despeditzen dira, eta, momentuz, ezin dituzte aipatutako kontratuak berritu. "Jokalariren baten

kontratua berritzerakoan, ligako taldeen erdiek guk baino askoz ere gehiago ordaintzeko ahalmena dute. Taldeak gu baino lehenago hasten dira fitxaketak eta plantillak isten. Fitxaketak egiteko 5 jokalariren nazionalen zerrenda prestatuta neukan eta gure egoeratik jokalaririk banaka joan dira erortzen. Gu azken orduan ibiltzen gara fitxaketetan, eta zailagoa da. Horregatik, sarritan beste merkatuetara joan behar izaten dugu, Brasilera eta abar" aipatu zuen Imanol Arregik. Horregatik, Araçak Xotan jarraitzeko izandako jarrera txalotu zuen. "Hemen jarraitzea erabaki du denboraldiko 13.700 euro gutxiago irabazita, mahai gainean 4 urteko kontratua izanda. Gurean jarraitzeko egin duen apustua txalotzekoa da" aitortu zuen Imanolek.

Nafarroa Arenari uko

Horretaz gain, hurrengo denboraldian Nafarroa Arenaren jokatzeke egitasmoari uko egin behar izan dio taldeak, Nafarroa Arena kudeatzen duen Javier Lacunza eta bere taldearekin negoziatzeko oso aurreratuta zeudenean. "Pena handia ematen digu, eta alde horretatik eurek egindako lana eskertu nahi dugu, baina arazo ekonomikoengatik, ezinezkoa izan da" azaldu zuen.

Bestalde, Xotako jubenilak maila nazionalen aritzeko sailkatu ziren, baina mailari uko egin behar izan dio klubak, arrazoi ekonomikoengatik, eta maila erregionalean jarraituko dute.

Altsasu eta Milakolore, guztiok txapeldun

FUTBOLA SDAk Milakoloreren aldeko futbol partida inklusiboa antolatu du larunbatean, 18:30ean, Dantzalekun. Altsasu taldeko futbolariak eta Milakolorekoek nahasita jokatuko dute, eta jaialdian jasotakoa Milakolore elkartearendako izango da

Sociedad Deportiva Altsasuak aspaldi zuen buruan Milakolore elkartearen alde zerbait egitea. "Ez bakarrik elkartearen alde dirua lortzeko, baizik eta Milakoloreko neska-mutikoak futboleko murgiltzea sustatzeko. Askotan entzun izan dugu gaztetxo hauek ezin izan dutela futboleko aritu behar bereziak ez dituzten gaztetxoekin, eta guztiak elkar-tzea primerako ideia iruditu zaigu" azaldu dute Sociedad Deportiva Altsasuako arduradunek. Horrela, futbol partida inklusiboa antolatu dute.

Futbol partida inklusibo honetan Altsasu futbol taldeetan aritzen diren neska mutikoak ariko dira, 14-15 urte artekoak, haurren eta kadeteen mailakoak, eta Milakoloreko neska-mutikoak. "Guztiak nahasiz bi talde osatu ditugu eta euren arteko partida da larunbatean, 18:30ean, Dantzalekun jokatuko dena" gaineratu dute Sociedad Deportiva Altsasu taldekoek.



Agertokietatik Dantzaleku futbol zelaira egingo dute salto Milakolorekoek.

Jasotakoa Milakolorerendako

Partida bukatuta sari ematea eta txistorrada egonen da, eta sarre-
rekin eta pintxoekin lortutako guztia Milakolore elkartearen-
dako izanen da. "Horregatik, eta
partida oso berezia eta polita

izango delako, jende guztiari
larunbatean Dantzalekura hur-
biltzeko deia egiten diogu, fut-
bolariak txalotu eta Milakolore-
ren aldeko ekimena sustatzeko" animatu dute Sociedad Deporti-
vakoek.



Lagunek igoera ospatu zuen, gabarra eta guzti

FUTBOLA Lakuntzako Lagun Arte taldeak iaz galdu zuen preferente maila, baina erregionalean jokatu duen denboraldi honetan preferentera igotzea lortu du. Klubak eta futbolariak larunbatean gogoz ospatu zuten igoera. Futbol zelaian bildu, traktoreak zeraman

gabarrara igo eta herriari buelta eman zioten, haurrak gertu zituztela. Emakumezkoen txirrindularitza proba zegoenez, giro polita zegoen Lakuntzan. Ondoren, Lagun Arte tabernan bildu ziren aflatzera eta parranda ordu txikitara arte luzatu zen.



Olazti, autoen topaleku

AUTOMOBILISMOA Barandi tabernak Olaztiko Sarasate plazan antolatutako autoen kontzentrazioan 25 auto bildu ziren. "Giro ederra egon zen, eta guztiek batera bueltatxoa egin genuen: Opakuatik igo eta Urbasatik Olaztira jaitsi ginen" azaldu du Aritz Barandiaranek. Harrera ikusita, heldu den urtean Sarasate plazaz aparte, San Migel plazan sartu nahi dira autoak.

Iratxo Botxa Txapelketa bihar erabakiko da Irurtzunen

BOTXA Iratxo elkarteko botxategiak gaur finalerdiak eta bihar finalak hartuko ditu

Maiatzaren 25ean hasi zen Iratxo Botxa Txapelketa, izen bereko elkarteko botxategian. Aurten 3 kidez osatutako 7 taldek hartu dute parte petanka antzeko joko tradizionalan, eta ligaxka ederra jokatu eta gero, asteburu honetan finalerdiak eta finalak egongo dira jokoan.

Finalistak

Gaur, ostiralean, finalerdiak jokatuko dira. Batetik, Migel-Txutxurri-Edurne botxalariek osatutako taldeak AHTrik ez taldea izango du aurkari, eta, bestetik, Tximeleta taldea Desesperados taldearen kontra ariko da. Bihar, larunbatean, 19:30etik aurrera galtzaileek 3. eta 4. postuak zehazteko partida jokatuko dute eta irabazleek final handia. Ondoren sari banaketa izanen da. Beraz, Iratxon ez da girorik faltako.



Botxan, jaurtiketa egiteko prest. IRATXO

Txapelketan aritu diren taldeak: AHT-rik ez (Mikel, Florentino, Iñaki), Tximeleta (Pakita, Alizia, Josune), Desesperados (Txeli, Tere, Mari Juanito), Migel-Txutxurri-Edurne, Zapa-Alfredo-Joxean, Lirainak (Santos-Julen-Marian) eta Iker-Joana-Eneko.

Sakandarrak Logroñon, Lekeition eta L'Ametllan

TRIATLOIA Sergio Garcia de Eulate 10.a sailkatu zen L'Ametlla del Marren, Xabi eta Javi Borrega ongi aritu ziren Lekeitioko Triatloian eta Jon Iturrioz txukun aritu zen Logroñoko Triatloian, bero itogarriari aurre eginez

Sakana Triatloi Taldeko Jon Iturriozek larunbatean Logroñoko distantzia erdiko triatloian hartu zuen parte (1,9 km igerian, 90 km bizikletan eta 21 km korrika). Igeriketa segmentuan ongi ibili zen altsasuarra, baina txirrindularitza segmentua "oso gogorra" egin zitzaiola aitortu zuen, bero izugarria egiten baitzuen. Azkenean, txukun bukatu zuen, gizonetzkoen sailkapenean 275.a (5:32:12), Tripenta Terras de Lugo taldeko Gustavo Rodriguez txapeldunetik 1:40:07ra.

Egun berean, Xabi eta Javi Borrega sprint distantziako Lekeitioko Triatloian aritu ziren (0,750 m igerian, 21 km bizikletan eta 5 km korrika). Aurten helduekin estreinatu da Xabi Borrega kadetea, eta ongi egokitzen ari da. Luke Burns (1:00:03) eta Irene Loizate (1:08:32) triatletek irabazi zuten proban, Xabi Borrega 263.a sailkatu zen (1:20:27), kadeteetan 13.a, eta Javier Borrega 264.a (1:20:27).



Garcia de Eulate, L'Ametllan. SAKANA T.T.

Garcia de Eulate 10.a L'Ametlla del Marren

Sergio Garcia de Eulate altsasuarrak distantzia erdiko L'Ametlla del Mar Half Triatloian parte hartu zuen igandean (1,9 km igerian, 90 km bizikletan eta

21 km korrika). Bare bare zegoen itsasoan Eulatek ohi baino denbora, hobe egin zuen igeriketa segmentuan, baina bizikletan ez zen normalean aritzen den bezain fin ibili. Hala ere, bikain aritu zen eta sailkapen absolutuan 10.a sailkatu zen altsasuarra (4:25:06), Tricalaverako Jordi Miranda txapeldunarengatik (4:00:30) ia 25 minutura.

Andueza eta Razkin txapeldun Eguesibarren

Larunbatean XIX. Eguesibarko Haurren Triatloia jokatu zen. Gizonetzkoen benjaminen proba Oihan Andueza altsasuarrak irabazi zuen eta Eneko Razkin lakuntzarra laugarrena sailkatu zen. Gizonetzkoen kimuen mailan podiumaren gorenera igo zen Alain Razkin lakuntzarra, sekulako proba egin eta gero. Eta haurren gizonetzkoen mailan Hegoi Lakuntza Zelaia altsasuarra podiumera igotzear geratu zen, laugarrena sailkatu baitzen.



Likoretas, Altsasukoak Aske 3x3 txapelduna

TRIATLOIA CBASK-ek antolatutako Altsasukoak Aske 3x3 Streetball Txapelketa arrakastatsua izan zen oso. Giro aparta egon zen egun guztian eta ikusle asko hurbildu ziren Intxostiapuntara. Guztira 10 taldek hartu zuten parte, tartean emakumezkoen "Renacidas"

taldeak. DJ Txenek musika jarri zuen eta kontzentrazioa egin zen "Altsasukoak kantxara" lelopean. Adrian Senar, Aimar Azpiroz, Arkaitz Gurrutxagag eta Unai Mundiñanoren "Likoretas" taldeak irabazi zion finala Aguraingo taldeari, luzapenean.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGURDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 21

OLAZTI Errefuxiatuen aldeko bigarren eskuko elkartasun azoka eginen dute eskolako ikasleek.
10:00etatik 14:00etara, eskolako patioan.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

URDIAIN Udako solstizioa.
19:30ean, igerilekuetan.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.



ALTSASU *Napardeath* filmaren emanaldia.
20:00etan, Kukurrekka elkartearen.

LARUNBATA 22

OLAZTI Urbasako iturrien 4,5 kilometrotako ibilbidea eta tokiko produktuak dastatzea Urbasa kanpinean. Izena ematea: 608 560 369 edo info@mirua.com.
10:00etan, interpretazio gunean.



IRURTZUN 'Fleury Merogisen preso dago' Itziar Morenoren margolen erakusketa. Ekainaren 16tik uztailaren 30era, Pikuxar euskal txokoan.

ZIORDIA Agroekologia erosketa ereduak. Euskal Herriko kontsumo talde, elkarte, kooperatiben saretzea. EHKolektiboak antolatuta.
10:00etatik 14:00etara, Amaraunan.

OLAZTI Batueko eguna. Kalejira txistulariekin, erromeria Batuekora, hamaiketakoa, bazkaria, txaranga eta Sardinada.
10:30ean, plazatik (euria eginez gero Memoria Historikoaren parkean).

ALTSASU Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako ikasleen *Azala* ikuskizuna.
18:00etan eta 20:00etan, Iortia kultur gunean.

ASTELEHENA 24

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea.
12:00ean, udaletxearen parean.



Andaren 'Lantegia' erakusketaren areto bat. CASTILLO SUAREZ

Jose Ramon Andaren Donostiako 'Lantegia' erakusketara bisita

Bakaikuko Udalak eta Bakarrekotxea elkarteak erakusketara bisita antolatu du ekainaren 29rako

BAKAIKU
Jose Ramon Anda artista bakaikuarrek Donostiako Kubo aretoan *Lantegia* erakusketa mustu zuen. Abuztura arte egonen da zabalik, baina, aurretik, bakaikuarrek bisita eginen diote. Datorren ekainaren 29an, larunbatean, izanen da, baina etzi, ekainaren 23, igandea, izena emateko epea amaituko da.

Andaren "zurezko basoa" bezala izendatu dute Donostiako erakusketa. Izan ere, Andak zurez egindako 90 bat lan erakusten dira bertan. Bakaikurrek erakusketa ikusteko aukera izanen

dute datorren ekainaren 29an, larunbatean. Gainera, Jose Ramon Anda erakusketaren gidaria izanen da. Erakusketara eginen duten bidaiara joateko izena ematea ekainaren 23an, igandean, amaituko da, baita La Fabrica jatetxean eginen duten bazkari-ara apuntatzeko epea ere.

Autobusa 10:00etan aterako da Bakaikutik eta itzulera 20:00etan jarri dute. Autobusa Bakaikuko Udalak eta Bakarrekotxea elkarteak jarriko dute eta erakusketa doan da. Aldiz, bazkarian izena ematen dutenek 40 euro ordaindu beharko dute.

ZORION AGURRAK



Oihan
Zorionak maitia!
Hurrengo astean, 10 urte betetzen dituzu. Ongi pasa! Mila muxu Egoitz, aita eta amaren partez!



Oihan
Zorionak! Ongi pasa zure eguna eta festetan baita ere. Muxu potolo bat, Aguraingo eta Arbizuko familiaren partez!



Mairu Nuñez Gurutzarri
Ekainan 21ien gure poxpolitok danekos 2 urte!! Zorionak ta musu haundi bet denon partes!



EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 21

Min. 8° Max. 17°

Larunbata, 22

Min. 6° Max. 26°

Igandea, 23

Min. 16° Max. 32°

Astelehena, 24

Min. 16° Max. 33°

DE KOVEN NAVARRA
CARPINTERIA DE P.V.C.

- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxo: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

JAIOTZAK

- **Kira Beraza Sanz**, ekainaren 12an Iturmendin
- **Amir Hadafe Ouabib**, ekainaren 12an Altsasun

EZKONTZAK

- **Nekane Ormazabal Arratibel eta Alex Ibañez de Opakua Amillano**, ekainaren 14an Etxarri Aranatz

HERIOTZAK

- **Maria Razkin Mozo**, ekainaren 14an Etxarri Aranatz
- **Miguel Ondarra Fernandez**, ekainaren 18an Bakaikun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK**LOKALA ERRENTAN**

Etxarri Aranatz lokal komertziala alokatzen da: 72 metro karratuko azalera du eta bulego bezala prestatu dago, herriaren erdigunean. Interesatuak deitu 635 740 439 tfnora.

LANA/NEGOZIOAK**LAN ESKAINTZA**

Lakuntzako udalak igeriketa monitoria kontratazeko deialdia zabaldu du: kontratuaren iraupena uztailaren 1etik 31ra. Sorosle Titulua (+DESA) eta EGA edo balioidea izatea derrigorrezkoa da. Izena emateko epea ekainaren 24an amaitzen da.

Bakaikuko Udalak begiraleak behar ditu: Bakaikun Euskaraz 3-12 urte bitarteko aisialdi ekimenerako. Lanaldia ekainaren 26tik uztailaren 19ra izango da, goizetan. Interesatuak Curriculum-a udala@bakaiku.eus postara bidali lehen bait lehen.

OHARRAK

Olatziko goitibeherak 2019: uztailak 27, larunbata, 17:00etan. Izena eman gaztetxean eta hasi zurea prestatzen!!

Olatziko haurrendako festa zapi: azken urtean jaiotako haurrei Santa Ana festetara ongi etorria

emateko udalak zapi oparitu die. Zapi jaso nahi duten gurasoek udaletxean eman dezakete izena uztailaren 17ra arte.

Igeriketa ikastaroa Lakuntzan: uztailaren 1etik 31ra, astelehenetik ostiralerako burutuko da. Izen ematea Udaleko webgunean, ekainaren 24ra arte, www.lakuntza.eus-en.

11/12 SUMARIOA: 47 auzipetu hiru bat hilabetez Madril en epaituko dituzte. 337.462 euroko gastuak izanen dituzte. Horri aurre egiteko diru ekarpenak eskatu dituzte. Hori Labor Kutxaren ES82 3035 0057 9205 7005 9033 kontu korrontean sartu daitezke.

Sakana Trenaren alde AHTRik Ez plataformak asteartero, 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan txandakatu egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

Bidelagun izan nahi? Mintzake programaren bidez euskara praktikatzen elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonon edo AE-Kren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia.

Crowdfunding Kanpaina: Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arba-zuarraren erronkan parte hartzea gonbidatuta zaude. Arruazutik izabarraino mendi lasterketa eta gazta trukaketa "Bideak" dokumentalean jasotzeko kanpaina laguntzeko diru bilketa egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideakdokumentala.eu/> eu/crowdfunding-kanpaina web-gunean.

3MBK kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Josefina Arregui kliniko bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosefinaarreguilagunak.blogspot.com.

Enpargarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkartek langabeei eta lan bila dabilenendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

www.iragarkilaburak.eus

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:
24,20 euro
948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIA

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 - www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
✉ @Grupolrache
f Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es



Maria Markotegi lehiaketaren saridunak. ENARA INSAUSTI

Sormena, hizkuntza indartzeko tresna

Sakanako Mankomunitateko Maria Markotegi sari banaketa izan zen astelehenean Lakuntzan. Euskara Zerbitzuak antolatzen du sormen sariaketa euskaraz idazteko eta irakurmena sustatzeko. Nanoipuin lehiaketaren sariak banatu zituzten ere

LAKUNTZA
Tradizio handiko sariak dira Maria Markotegi. "Urtero lan kopuru handia aurkezten da", Sakanako Mankomunitateko presidentea David Oroz Alonsok esan zuen bezala. Hortaz, sormena hizkuntza indartzeko apustua dela esan du Orozek. Eta, hain zuzen, sormen lanak saritu zituzten astelehenean Lakuntza-

ko kultur etxean egindako emaldian.
Maria Markotegi haurren eta gazteen euskarazko sormena bultzatzeko eta Nanoipuin euskara ikasleendako eta mintzaki-deendako lehiaketetako irabazleak saritu zituzten. "Gisa hone-tako lehiaketak beharrezkoak dira, batik bat ikus-entzunezko teknologien kontsumoaren au-

rrean, sormenak ariketa berezi bat eskatzen dutelako". Sortzea begiak irekitzea baino gehiago badela esan zuen Orozek. "Aurreiritziak kentzea komeni da".
Maria Markotegi sariketara 513 lan aurkeztu dira: 282 narrazio, 27 poesia sailean eta 231 komiki. 72 Nanoipuin aurkeztu dira. Saritu guztiek e-book bat jaso zuten.

Sakanako hizkera kalera, ikus-entzunezkoen bidez

Opazank! bideo lehiaketaren sariak banatu zituzten Maria Markotegi sari banaketaren ekitaldian

LAKUNTZA
Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Sakanako hizkera gizarteratzeko eta bultzatzeko bideo lehiaketa antolatu zuen aurten lehendabiziko aldiz, eta astelehenean Lakun-

tzako kultur etxean egindako sari banaketa *Opazank!* lehiaketaren bideo egileak saritzeko baliatu zuten ere.
Altsasuko Arkatz liburu-dendan gastatzeko 400 euroko balea Axun Erdozia, Ariane Paniagua, Eu-

femia Razkin, Eva Maria Palazuelos, Reme Ulaia, Maite Arruabarrena, Dolo Urkijo eta Idoia Artieda etxarriarrek osatzen zuten taldeak irabazi zuten. "Etxarriarrek doblajiek lana aurkeztu zuten lehiaketara. Bestetik, bigarren saria, Altsasuko Biltoki taberna-jatetxean 8 lagunendako afaria, Unax eta Aitzol Gainzarain Berastegirendako izan zen, "Gilda azpiyen baatzien" lanagatik. Parte hartzaileen artean bideo-kamera zozketatu zuten, eta Gainzaraindarrek irabazi zuten.



Nanoipuin lehiaketaren saridunak. ENARA INSAUSTI

Sormen sariaketen irabazleak

Komiki saila

- **LHko 3. eta 4 mailak.** *Dragoiak badatoz*. Iker Bergara (Lakuntza).
- **LHko 3. eta 4 mailak.** *Bi otso*. Unax Etxeberria (Etxarri Aranatz).
- **LHko 5. eta 6 mailak.** *Galdu zen kotxea*. Aitor Lizarraga (Altsasu).
- **LH 5ko. eta 6 mailak.** *Salbatzailea*. Oihan Hernantz (Altsasu).
- **LHko 5. eta 6 mailak.** *Akuariora*. Olaia Ferrero (Altsasu).
- **DBHko 1. eta 2 mailak.** *Espazio horri begiratu*. Inge Martin (Arbizu).
- **DBHko 1. eta 2 mailak.** *Paranoia*. Itsaso Mendinueta (Arbizu).
- **DBHko 3. eta 4 mailak.** *Sahara*. Izadi Barandiaran (Bakaiku).

Poesia saila

- **LHko 3. eta 4. mailak.** *Lakuntza*. Asier Razkin (Lakuntza).
- **LHko 5. eta 6. mailak.** *Lagunak maite ditut*. Unax Etxeberria (Etxarri A.).
- **LHko 5. eta 6. mailak.** *Bihotz taupadak*. Iker Eskudero (Lakuntza).
- **LHko 5. eta 6. mailak.** *Agur*. Laida Gartzandia (Lakuntza).
- **DBHko 3. eta 4.** *Ixilean bizitzen*. Maria Hernandez (Agurain).
- **DBHko 3. eta 4.** *Urtaroak*. Anne Lapuente (Ziordia).

Narrazio saila

- **LHko 3. eta 4. mailak.** *Zerua gozotegia*. Araitx Napal (Etxarri A.).
- **LHko 3. eta 4. mailak.** *Nola edo hala, bizi*. Ion Razkin (Arbizu).
- **LHko 5. eta 6 mailak.** *Vitorio, nire laguna*. Libe Aierdi (Altsasu).
- **LHko 5. eta 6 mailak.** *Nadia naiz*. Uxue Anguiano (Altsasu).
- **DBHko 3. eta 4.** *Nor naiz?* Ainhoa Beramendi (Altsasu).
- **DBHko 3. eta 4.** *7 billete eta helmuga bakarra*. Iratxe L. de Abetxuko (Ag.).

Nanoipuinak.

- **1. maila.** *Amalurraren mendia*. Maurizzio Faeeda (Arbizu).
- **2. maila.** *Isabelen zaldia*. Ainhoa Alonso (Irurtzun).
- **3. maila.** *Alguazila eta erbia*. Inaxio Lezea (Altsasu).



'Opazank!' lehiaketaren saridunak. ENARA INSAUSTI

Humanizatutako geografiaren aztarnak

Geografia modernoaren "aitzindaria" izan zen Leoncio Urabayen Arakildarra. Orain, bere lanen oinarri diren hainbat argazki zahar ikus daitezke Nafarroako Unibertsitate Publikoko erakusketa digitalean

ERROTZ

1888an Errotzen, Arakilen, geografiaren ikerketak eraldatuko zituen geografoa jaio zen. Leoncio Urabayen zen. Orain, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Urabayanek egindako lanak eta erabiltako dokumentu grafikoak eskura jarri ditu erakusketa digitalean. Gainera, noizbehinka erakusketak antolatzen ditu ere. Concha Guijarro NUPeko liburutegiko sailburuak azaldu duenez, ikerlariendako zein publiko orokorrarendako interesgarria da.

Leoncio Urabayen geografo "aitzindaria" izan zen. Nafarroako geografia modernoa ikertu zuen, eta gehien interesatzen zitzaion arloa humanizatutako paisaiak ziren. Gai horretan oinarritu zen ia bere lan guztia. Hortaz, jendeak paisaian zuen eragina ikertu zuen. Baita herri eraikinei buruz idatzi zuen ere. Horretarako, herrietako etxeen eta eraikinen argazkietan oinarritzen zen. Urabayen irakasleen irakasle izan zen ere.

Nafarroako etxez eta Iruñeko eta herrietako kokalekuez idatzi zuen Urabayenek. 2008an Miguel Urabayen, Leoncioaren semeak, aitaren artxibo profesionala ematea erabaki zuen. NUPekin harremanak izaten hasi zen. Izan ere, Leoncio Iruñeko Magisteri-



Iruñeko Doña Blanca de Navarra kalea 1920-1940 urtetan. NUP-EKO LIBURUTEGIA

tza Eskolako zuzendaria izan zen, eta bere oinordekoa Nafarroako Unibertsitate Publikoa izan da.

Hamar urtez NUPek Urabayen artxibo profesionalaren dokumentuak, artxiboak, argazkiak, testuak eta beste jaso ditu. Jasotakoaren "inbentario zehatza" egiten ari direla azaldu du Guijarrok. Gainera, gauzak digitalizatzen ari dira ere. Artxiboan argazki bilduma "garrantzitsua" dagoela esan du, eta horietako 30 argazki NUPen 30. urteurrenaren harira erakusketa batean

erakutsi zituzten. Orain, erakusketa digitala ireki dute NUPeko liburutegiaren web gunean.

1900 eta 1960 urte bitarteko argazki zaharrak dira orain plazaratu dituztenak. Nafarroako herri etxeetako argazkiak eta postalak dira, eta hainbat autoreek egindakoak dira. Argazkiak ikerketa lanak egiteko erabiltzen zituen geografoak, eta ikerlariendako interesgarriak izan daitezke. Hala ere, argazki eta postalen erakusketa "arrakastatsua" izaten ari da.

'Azala' dantza ikuskizuna izanen da bihar, Iortian

Irantzu Gonzalez Dantza Eskolaren ikasturteko bigarren eta azken ikuskizuna izanen da bihar, larunbata, 18:00etan eta 20:00etan, Iortia kultur gunean. Ikuskizun honekin kultur gunearen denboraldia amaituko da, udako oporrak pasa arte.

Dantza Eskolako "nagusien" taldeak egingen du *Azala* ikuskizuna bihar. Hortaz, 10 urtetik

gorako 120 dantzariak parte hartuko dute, 12 taldetan banatuta. Irantzu Gonzalez dantzariak azaldu duenez, ikuskizun oso "garaikidea" izanen da. Gainera, urtero berritzen eta harritzen saiatzen da, eta iaz egin zuten *Zarata* ikuskizunarekin alderatuta "oso ezberdina" izanen da. *Azala* ikuskizunarekin azalak sentitzen eta islatzen duena, eta bere malgutasuna adierazi nahi dute. Izan ere, koreografoak azaldu duenez, "gure bizitza osoa gelditzen den leku bat da azala".

'Napardeath'-eko zonbiak eta momiak gaur, Altsasun

Napardeath trilogiaren hirugarren filma, *Napardeath*, proiektatuko dute gaur, ostirala, 20:00etan, Kukuerreka elkartearen. Zonbi karlistak, banpiro jeltzaleak eta momia abertzaleak agertzen dira filmean, baita altsasuarren bat ere. Atzo, osteguna, trilogiaren lehenengo bi filmak proiektatu zituzten: *Ataun of the dead* eta *Joxean's Hil Eben*.



BAZTERRETIK

RICARDO ARETA URRESTARATZU

Orkestrak S.A.

Sanjuanak datoz eta hauekin batera herrietako festak. Orkestrak neguko lozorrotik ateratzen dira plazako betiko kantekin, eta epe laburrean prestatu behar izan dituzten irradian eta sareetan momentuko arrakasta lortu duten abestiekin alaitzeko asmoz.

Kikarakada bat hartzen dugun bitartean, kalejira bat entzuten dugu eta eszenatokian, musika jotzen, lagun talde bat ikusten dugu, plaza bete nahian, batzuetan erraza ez den arren. Ondoren elkarrekin afaltzera joanen dira gaueko gaupasari aurre egin ahal izateko.

Musika taldea zaletasun amankomun bati esker elkartu, bozgorailuak, mikrofonoak eta kamioi bat erosi eta errepidera, eguneko ogia irabaztera ateratu den lagun talde bat dela pentsatzen dugu gehienetan. Baina, aspaldi, egorra hau aldatu zela, lagunarteko erlazioaz gain, oraindik ere egon badirela, lan erlazioak dira.

Normalean, talde kide bat edo bi taldearen jabeak dira. Hauek agente komertzialekin harremanak izaten dituzte, errepertorioa aukeratzen dute, musika ekipoa eta kamioia erosten dute eta musikariak kontratatzen dituzte. Musika taldeetan, ohikoena, musikari bakoitzak emanaldi bakoitzeko kobratzea da eta Gizarte-

Segurantzaren lan egindako egun bakoitzeko altan eta baxan ematea.

Talde bakoitzaren soldata betetzen duen lanaren arabera aldatzen da. Soilik musika jotzen duten taldekideak daude, eta musika jotzeaz gain argi eta soinu ekioparen muntaia eta desmuntaiaren laguntzen dutenak ere, eta honengatik plus bat kobratzen dute. Kasu hauetan, entseguak eta taldea promozionatzeko egiten diren grabazioak ez dira ordainduak izaten, hortaz, urtean badira euren nominetan islatzen ez diren dedikazio orduak.

Orkestra handietan aritzen diren musikariek hilean nomina bat kobratzen dute, emanaldiak izan ala ez, eta hauen kasuan bai entsegu baita promoziorako lan orduak ordaintzen dira. Orkestra mota hauek, askotan, ez dira taldekideen jabeagoak. Agente komertziala bera izan daiteke jabea, edota edozein enpresari, beste edozein enpresa bezala kudeatzen duena.

Musika talde bat sortzen denean, kontu hauek ez dira beti kontuan hartzen. Horregatik, kasu batzuetan, zenbait laguneren artean osatzen da musika taldea eta garatzen joaten den heinean, kudeaketa maila handitzen denean, taldekideek bertan erabakitzen dute batek lidergoa hartzea eta besteak langileak izatea, elkarre bat osatuz.

Baina edozein modutan, garrantzitsuenak, plaza betetzea da, batzuetan erraza ez den arren.



UTZITAKOA

Munduari buelta 50 minututan

Lakuntzako kultur etxean 'Munduko dantzak' ikuskizuna egin zuten Lakuntzako Irantzu Dantza Eskolako dantza ikasleek. Afrika, Frantzia, Hawaii, India eta Mexiko herrialdeetako koreografiak egin zituzten. Nerea Llamas da irakaslea eta 5 eta 13 urte bitarteko sei talde ditu. Nagusien taldeak 'Azala' ikuskizunaren koreografia bat mustu zuen Lakuntzan.

'SinCronica', irakurriko zaituen liburua

Kike Fernandez de Garaialde filosofo altsasuarrak 'SinCronica' liburua argitaratu berri du. Betidanik idazten duen arren, kaleratzen duen lehendabiziko liburua da. Pentsarazteko eta galderak egiteko liburua da: "gizakia esnatu behar da"

ALTSASU

Erantzunak baino, galderak aurkitzeko liburua da *SinCronica*, Kike Fernandez de Garaialde egileak azaldu duen bezala. "Ez dakit zuk irakurriko duzun liburua, edo liburuak zu irakurriko zaituen". Etxeko leihoan hausnartzen ari zen, eta "sinkronikaren" ideia "erori" zitzaion. "Nire asmoa haikuen antzeko zerbait egitea izan da. Hitz gutxienekin askoz gehiago esatea". Hortaz, hainbat narrazio laburretan "gauza asko" bildu ditu Fernandez de Garaialdek. "Mikra batean asko esan daiteke".

SinCronica. *El Reloj de los A-horas* deitzen da Kike Fernandez de Garaialderen lehenengo liburua. Mikrotrilogia izan nahi duen lehenengo mikrologia dela dio. Argitalpenaren azalean erlojuen artean galtzen den gorputz bat izan daiteke, eta kontrapotadan zuhaitz bat agertzen da. Zuhaitz honetako sustraiak neuronak dira. Neurona horiek Fernandez de Garaialderen lanaren hasiera dira. Izan ere, 2012an *La neurona filosofal* blog-a egin zuen eta bertan idatzitakoa publikatzen hasi zen.

Gizakia gauza guztien neurria dela esan zuen Socratesek. Eta hortik hasi zen haren pentsamendua garatzen Fernandez de Garaialdek ere. Friedrich Nietzsche-ren zalea da altsasuarra eta filosofo honen eta beste hainbaten liburuak irakurri ditu. Irakurtzea eta idaztea gustatzen zaio, baita pentsatzea ere. Eta *SinCronica*-rekin pentsaraztea nahi du.

Nietzsche irakurtzen zuela baina ezin zuela "gainditu" esan du. "Ez nuenerabat konprenitzen". Maria Zambrano topatu zuen arte. Begiak ireki zion Zambra-nok, filosofo guztiak ulertu eta gaingitu zituelako. Horregatik, liburuaren lehenengo esaldiak Zambranorenak dira. "Nik beti filosofia landu dut".



Kike Fernandez de Garaialde filosofoa 'SinCronica' liburuarekin.

FILOSOFIA GIZARTERATZEA NAHI DU FERNANDEZ DE GARAIALDE FILOSOFO ALTSASUARRAK

El Circulo Rojo autoediziorako argitaletxean kaleratu du *SinCronica* liburua altsasuarrak. Izan ere, idaztea gustatzen zaio. Momenturo idazten eta pentsatzen ari dela esan du. Gainera, hizkuntza "haustea" gustatzen zitzaiola azaldu du. "Gaztetan, errebelodia garai horretan, hizkuntza haustea gustatzen zitzaidan". Orain, idatzi "hautsi" horiek hartu ditu eta berregin ditu.

Pentsatzea

Hitzan sinisten du Fernandez de Garaialdek. *Gara* egunkaria jaio zenean Fernandez de Garaialdek goitizen batekin testuak idazten zituen eta liburuangaraiak testuak aurki daitezke. Gainera, sare sozialen zalea ere bada eta bertan hainbat testu idazten ditu ere. "Sinkronia" bat da. Beraz, gaur egungo testu batekin hasten da, eta duela 20 urtekoak tartekatzen

dira. Atenporalak direla dio idazleak: "izenak kentzen badituzu, gaur egun ulertzen dira". Izan ere, "lur azpian gelditzen diren neuronak" azaleratu nahi ditu Fernandez de Garaialdek.

"Beti ideia beraren inguruan hitz egiten dut". Filosofiatik leku komunera joatea nahi du, "baina oso zaila iruditzen zait". Liburu honekin filosofia gizarteratu nahi du. Oso "berezia" den gai hau jendeak ulertu nahi du. Gainera, lehenengo liburua dela, baina ez bakarria, gehitu du. Hauteskundeen aurretik kaleratu nahi zuen, baina "Sanchezek dena aurreratu zuen".

"Gau luze batean bizi garela uste dut, eta oso zaila da aurrera egitea". Pentsamendu "neoplatonikoan" oinarritzen da: "gizakia jakintsua da, baina bizitzara bota gaituzte eta noraezean gaudela. Berriz jakinduria berreskuratzen dugun arte". Hortaz, esnatze orokor bat egongo dela uste du. "Sufritzen dugunean esnatzen gara".

Teknologia gustukoa duen arren, gaizki erabiltzen direla esan du Fernandez de Garaialdek: "arimarik gabe erabiltzen dugu, eta esklabuak izatera pasako gara".



'Amaia da hasiera' ikuskizunaren parte hartzaileak Gaztelugatxen iaz. UTZITAKOIA

Amaiaren patuak Irurtzunera ekarriko du, San Joan bezperan

'Amaia da hasiera' ikuskizuna egingen dute Irurtzungo plazan, ekainaren 23an, igandean, 22:30ean

IRURTZUN

San Joan bezpera gau magikoa dela diote. Urteko egunik luzee-na eta gau motzena da. Izpirituak eta sorginak kalera ateratzen diren gaua omen da ere. Irurtzunen, izpirituak ez, baina izaki mitologikoak aterako dira: Tartalo, Gizotsoak, Basajaun eta Basandere, Akerbeltz, Galtzago-riak eta Mari Jainkosa. Orritzeko pertsonaiak igandeko gau magikoan aterako dira eta Amaia agurtuko dute. Gainera, Irurtzungo sorginek Akelarrea egingen dute eta dantzariak ere erritua-lak egingen dituzte. *Amaia da hasiera* ikuskizuna egingen dute guztiek, igandean, 22:30ean, Irurtzungo plazan.

Orritz dantza taldeak San Joan bezpera gauean ikuskizuna egingen duen Gaztelugatxe ondoan dagoen Eneperi jatetxean. Iaz Ion Barbarin antzerkigileari laguntza eskatu zioten, izaki mitologikoak agertzen ziren istorioa bat kontatu nahi zutelako. Amico antzerki taldeak, Barbarinek eta Txorik osatzen dutena, *Amaia da hasiera* ikuskizuna sortu zuten. Iaz, beraz, antzezla-na itsasoa eta Gaztelugatxe atzean zutela mustu zuten, eta, aurten, Irurtzunen egingen dute. Izan ere, Barbarinek azaldu bezala, "azken urteetan ezin izan dute San Joan bezpera Irurtzunen ospatu".

Amaia da hasiera ikuskizunera Irurtzungo plazan inguru "magikoa" sortuko dutela esan du antzerkigileak. Espazioak guztiz desberdinak izan arren, ez dute asko moldatu behar izan.

Antzezlanak Amaiaren istorioa kontatzen du. San Joan bezperan jaio zen Amaia, eta gertaera horrek bere patua idatzi zuen. 16 urterekin, gau magiko horretan, bere bidea egiten hasiko da.

"Heldutasunera pasatzeko egin beharreko bidai bat da". Eta ibilbidean hainbat pertsonaiekin elkartuko da, besteak beste: Tartalo bere Gizotsoekin, Basajaunak eta Basandereak, Akerbeltzak, Galtzago-riak eta Mari Jainkosa. Orritzeko pertsonaiak, beraz, egonen dira, baita beste hainbat aktore ere. Lorena Arangoa, Izaskun Mujika, Beatriz Lorente eta Amaia Lorente izanen dira aktoreak. Beatriz eta Amaia, gainera, ama-alaba dira, eta, beraz, sena "etxetik ekartzen zuten".

Akelarre

Duela hainbat urte Irurtzungo hainbat emakumek "Akelarre antzeko bat" egingen dute San Joan bezperan, eta igandeko ikuskizunean ere ariko dira: "bukaera Akelarre horrekin emanen diogu". Orritzeko dantzariak ere egonen dira. "Guztira, 50 bat pertsonen parte hartuko dute".

Amaiaren istorioa Amico Antzerki Taldean sortu bazuten ere, nahiko istorioa "erabilia" dela esan du. "Azken finean bere patua eta bidea bilatzen duen neska baten istorioa kontatzen du". Gainera, ideia euskal mitologiatik zetorren. Izan ere, Orritzeko pertsonaiekin sortu zen dena. San Joan bezperaren gau magikoan ohitura sortuko duten "patuaren" gauza dela esan du Barbarinek.

"Ofizioarekin jarraitzea harrotasuna bada"

Duela 30 urteko San Joan bezperan Portuko okindegia mustu zuten Txaro Mujikak eta Txomin Leinenak Urdiainen. Urdiaindik Altsasura eta Etxarrira saltoa eman zuten, eta orain seme-alabek jarraitu dute okindegiaren ofizioarekin, Edurnek esan bezala

E. Carreño eta E. Ruiz ALTSASU

1 Zergatik Portuko izena?

Txaro. Urdiainen okindegia Portuko kalean zegoen eta, gainera, Txomin pasaitarra zen, portukoa, eta portuarekin lotura zeukan. Bere aitak portuan egiten zuen lan. Eta Portuko auke-ratu genuen.

2 Gipuzkoatik etorri zineten, eta Urdiainen okindegia ireki zenuten. Zergatik Urdiain?

T. Ni Urdiainen jaioa naiz. Nire ama urdiaindarra zen eta bere familia osoa hemengo zen. Askotan etortzen ginen. Lotura mantendu nuen. Garai hartan Txomin eta biok langabezian gelditu ginen. Eta orduan beste hiru sozioekin okindegi bat jarri genuen. Orduan oso modan zeuden *Boutique del pan* delakoak. Eta orduan okindegietan ikasi genuen. Han egon ginen urte batzuk lan egiten. Mota guztietako ogiak egiten genituen. Sozio artean gauzak konplikatzen hasi ziren eta han lokalak oso garestiak ziren. Urdiainen amonaren etxea genuen eta okindegirik ez zegoenez, Erreterriako etxea saldu eta diru horrekin Urdinen okindegiarekin hasi ginen.



Leinena-Mujika familia. UTZITAKOA

3 Eta horrela sortu zenuten Portuko. Bakarrik etorri zineten?

T. Bi haur genituen. Unaik, txikienak, urte bat zeukan. Hemen etxe zahar bat bilatu genuen eta okindegi txiki bat jarri genuen. Goian pisua egin genuen.

4 Biak okinak zineten?

T. Biak. Nik gehien bat administrazioa eramaten nuen, dendan lan egiten nuen eta labean laguntzen nuen. Beste bi seme-alaba izan genituen. Baina haurrak Urdiainen hezte erraza izan da.

5 Duela 30 urte orain beste ogi mota zegoen?

T. Mota asko zegoen, eta egiten genituen. Baina azkenean egiten duzu gehien saltzen dena. Izan ere, agian mota bat egiten duzu eta ez da hainbeste saltzen. Hasieran 20 bat mota egingo genituen, eta orain 40 bat daukagu. Txomini beti gustatu izan zaio noizean behin ogi berriak egitea jendea ez aspertzeko.

6 Noiz erabaki zenuten denda zabaltzea?

T. Berehala ikusi genuen gure inbertsioa handia zela, eta Urdiainen ez genuela asko irabazten. Altsasun lokal bat alokatu genuen eta han hasi ginen. Hara jende gehiago etortzen zen eta harrera ona izan genuen. Asteazkenetan azoka zela eta jende asko etortzen zen. Txominek pentsatu zuen Etxarri Aranatzan ere jar genezakeela okindegi bat. Etxeko labeari txikia gelditzen ari zen. Orduan pabiloi bat hartzea erabaki genuen. Azkenean, Altsasun, Ibarrean, hartu genuen eta arau guztiak jarraituz egin genuen.

Edurne. Etxean geneukana zaharkiturik zegoen eta txikia zen. Anai-arrebek jarraitzea erabaki genuenez zerbait handiago hartzea erabaki genuen. Altsasuko pabiloi hori 2013an zabaltu genuen eta oso ondo egin genuen. Askok nabaritzen da. Sakana ia osoan ere banatzen dugu ogia. Olaztin denda batean uzten dugu eta Urdiainen harategian.

7 Eta negozioarekin jarraitzen duzue.

T. Harrotasuna bada. Eta Txominendako ere harrotasuna zen.

Txomin beti aurretik joaten zen. Beste okindegi batzuk irekitzen hasi ziren, eta Txominek Etxarrin ondoko lokala hutsik gelditu zenean alokatzea pentsatu zuen. Denda txikia gelditu zen, zaharkitua eta kafetegia jarri genuen ere.

8 Gozotegia ere bazarete.

T. Opildegia beti okindegiarekin lotuta egon da. Croissantak, esne opilak... Gozogintza asko ere daukagu. Tasiori gozogintza gustatzen zaio eta saltseatzen aritzen da. Bera hasi zen gauza berriak egiten. Ogia egiteko berotasuna behar duzu, eta gozogintza egiteko hotza. Beraz, gela klimatizatu bat dugu gozogintza egiteko.

9 Nola banatzen duzue lana anai-arreben artean?

E. Ni paperen artean eta dendan egoten naiz. Guztion artean ongi moldatzen gara. Larraitzen denda, ni ere pixka bat leku guztietan eta Tasio eta Unai pabiloian ogia egiten egoten dira.

10 Zenbat langile zaudete?

E. Etxeko bostak, Iñakirekin sei eta beste zortzi. Guztira hamalau pertsona. Bada. Ekipo ona egiten dugu, egia esan. Kontentu gaudela. Azken finean, urtean bi egunetan ixten dugu bakarrik. Eta ordezkapenak eta oporrak egiteko pertsonala behar duzu.

11 30. urteurrena. Ospatuko duzue?

T. Orain arte ez dugu ezer egin. Beti lanarekin eta 25. urteurrenean Txomin ez zegoen ospatzeko; ez dugu ezer egin.

E. Aurten zerbait egitea pentsatu dut. Behintzat, jakinaraztea.

UDA HONETAN
freska ezazu zure irudia

Txartelak, logoak, iragarkiak, pegatinak, eskuorriak, kartelak...
eta bururatzen zaizun guztia!

948 564 275 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
gk@komunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

